

2010EKO URRIAK 28

28 DE OCTUBRE DE 2010

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIKOA

SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2010EKO URRIAK 28

DIA: 28 DE OCTUBRE DE 2.010

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Andoni ETXANIZ OSA
Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Manuel ZUBIA ARTABE
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Nerea EPELDE AZKUE
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Paloma HEREDERO NEGREDO
Aitor LEIZA ALBERDI

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Pilar ETXABE IRIONDO

Cristina FORCADA UNANUE.

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE
SECRETARIO:

Alkate jaunak bilera eratutzat Se da por constituida la sesión por
ematen du. el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA (EA): Eskerrik asko, eta gaur ohiko plenoari hasiera emango diogu, urriak 28, gai ordena bueno.... ikusi duzue luze xamarra dela eta ea denon artean, motz egiten dugun, gehiegi luzatu gabe,

Aurrenengo puntua ohi bezala,

AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BALDIN BADA, bateren batek zerbait esateko,

Beraz, ontzat ematen da denon aldetik,

SRA. PALOMA HEREDERO NEGREDO, (PSE-PSOE): La parte que está en castellano, sí,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bigarren puntua,
PROPOSAMENA:

**AZKEN OPERAZIO POLIZIAREN INGURUKO
PROPOSAMENA TALDE MISTOAK ETA EAK
AURKEZTURIKOA,**

Atzo, hain zuzen ere, eduki genuen bozeraemaileen batzordea, bertan aurkeztua, bai Ezker Abertzaleak eta EAK aurkeztutako mozioaren edo proposamenaren inguruan.

Proposamenak, honela dio jarraian irakurriko dut:

Euskal Herria garai politiko berrian sarizen ari da; gure herrian aspalditik dirauen gatazka politikoari elkarrizketaren bidetik eta akordioen bitartez konponbidea emango zaioneko garaia; liskarrak bide politiko, demokratiko eta baketsuetatik

Euskal Herria está entrando en una nueva etapa política; una etapa que busca dar solución al conflicto político existente en nuestro Pueblo mediante el uso del diálogo y el acuerdo; una etapa en la que la confrontación se dé exclusivamente por vías

soilik konponduko direneko garaia.

Giza Eskubideen inguruan nazioarteko legediak eta Nazio Batuen Erakundeak gaur egun arte garatu duen araudiak jasotakoa oinarri hartuta, pertsona guztien eskubide guztiak beteko dituen agertokia exijitzen dugu. Agertoki horretan, euskal herritarrei hitza emateko eta demokratikoki adierazitako erabaki subiranoaren arabera jokatzeko, bide bakarra Eskubide Zibil eta Politiko guztiak, norbanakoenak nahiz kolektiboak, erabiltzea izango da, eta ez da salbuespeneko ekintzarik ez egoerarik egongo.

Euskal Herrian agertoki politiko berna sortzeko konpromisoa dugu eta beste eragile asko ere horretan dabilta; horren aurrean, ordea, Espainiako Gobernuak argi uzten du Euskal Herrian bizi dugun bortxakeria eta gatazka politikoa konpontzeko borondate handirik ez duela, probokazioetan eta bidean oztopoak jartzen ari delako etengabe.

Azken hilabete hauetan, ETAk ekintza armatuen aldebakarreko etena iragarri duen arren, irailaren 11rako iragarrita zegoen manifestazioa debekatu dute, besteak beste. Manifestazio horren helburua, hainbat polizia operazioetan atxilotutakoei

políticas, pacíficas y democráticas.

Exigimos un escenario donde se respeten todos los derechos de todas las personas, en base a los principios establecidos en la Legislación internacional sobre Derechos Humanos y en toda la normativa desarrollada hasta hoy por la Organización de las Naciones Unidas, y en el que el ejercicio de todos los Derechos Civiles y Políticos tanto individuales como colectivos sea la única vía, sin acciones ni situaciones de excepción, para dar la palabra a la ciudadanía vasca y actuar conforme a su decisión soberana y democráticamente expresada.

Frente a nuestro compromiso y las aportaciones de otros muchos agentes a la creación de un nuevo escenario político para Euskal Herria, nos encontramos con que el Gobierno del Estado Español está dejando en evidencia su poca voluntad para favorecer una solución a la situación de violencia y conflicto político que vivimos en Euskal Herria, realizando continuas provocaciones y poniendo continuamente piedras en el camino.

Los últimos meses, pese al anuncio por parte de ETA de un cese unilateral de acciones armadas, hemos asistido, además de a la prohibición de la manifestación convocada para el 11 de septiembre de reclamación de los derechos básicos, a las

inkomunikazioa eta Lege Antiterrorista ezarri zitzaiela eta, horien oinarritzko eskubideak aldarrikatzea besterik ez zen arren.

Honekin batera, Polizia Nazionala, Beñat Lizeaga atxilotzera etorri zen Zumaiara, bere etxea eta Torreberri gaztetxea miatu zituzten. Gogor salatu nahi dugu, miaketa unean poliziek izandako jarrera bortitza. Onartezina da, bere burua demokratikotzat jotzen duen estatu batean, goizeko hiruretan atea bota eta modu basatian etxe batera sartzea, senideak jazartzea eta herritarren oinarritzko eskubideak era horretara bortxatzea.

Atxilotutako lagun horien artean “Bakebidean aterabide demokratikoen akordioa” sinatu dutenak daude.

Horietako bakoitzaren erakundeek sinatutako akordio honetan, argi eta garbi azaltzen dira egiten diren eskaerak, honako hauek, besteak beste:

1.- “ETAk nazioarteko komunitateak egiaztatzeko moduko su-eten iraunkorra eta aldebakarrekoa aldarrikatzea, jarduera armatua behin betiko uzteko borondatearen erakusle gisa.”

2.- “Eskubide zibil eta politiko guztien aitortza, proiektu politiko guztien jarduera eta garapena

detenciones de diversas personas en distintas operaciones policiales, habiéndoseles aplicado la Legislación Antiterrorista y el régimen de incomunicación.

Del mismo modo, La Policía Nacional vino a Zumaia a detener a Beñat Lizeaga. Registraron tanto su domicilio como Torreberri. Queremos denunciar firmemente la actitud de la policía a la hora de la detención. Es inaceptable que un estado que se considera democrático, se entre en una casa violentamente a las 3 de la madrugada, se ataque a los familiares y se violen de semejante forma los derechos fundamentales de los ciudadanos.

Entre estas personas detenidas se encuentran representantes de organizaciones que han firmado el Acuerdo de Gernika “En el camino de la paz, acuerdo por la solución democrática II

En el acuerdo, suscrito por sus respectivas organizaciones aparecen claramente expresadas, entre otras, las siguientes demandas:

1.- “La declaración de ETA de un alto el fuego permanente, unilateral y verificable por la comunidad internacional como expresión de voluntad para un definitivo abandono de su actividad armada.”

2.- “El reconocimiento de los derechos civiles y políticos permitiendo la actividad y el

onartuz, kontuan hartuta giza eskubide guztien aitorpena eta salbuespenik gabeko babesa direla eskubide horiexen oinarria. Ildo horretan, Alderdi Politikoen Legea indargabetzea exijitzen dugu, eskubide nagusien urraketak tresna juridiko horretan oinarritzen direlako.”

3.- “Inoren aurkako mehatxu, presio, jazarpen, atxiloketa eta tortura mota guztiak desagertzea, edozein dela ere pertsona horien jarduera edota ideologia politikoa.”

Gertaera hauen guztien aurrean, urratsak egin daitezela eskatzeko unea da, hitzak hitz hutsetan gelditu ez daitezen, izan ere, gure gizartean sortzen ari den agertoki berri hau finkatu nahi badu, denon ekarpen eta konpromisoak ezinbestekoak dira.

Hori dela eta, euskal herritarrak mobilizatzerara deitu nahi ditugu, ez dadin berriro sekula horrelakorik gertatu eta denon artean gure Herriarentzako bakea eta normalizazio politikoa lor ditzagun.

Beraz, ZUMAIAKO Udalak, osoko bilkuran honako hau onartu dezan, mozio hau aurkezten dugu:

1.- Euskal Herrian ireki den prozesua garatzen eta finkatzen laguntzeko konpromisoa erakustea. Prozesu hori, bide

desarrollo de todos los proyectos políticos, considerando que el reconocimiento y la protección sin excepción alguna de todos los derechos humanos es la base fundamental de los mismos. En este sentido, exigimos la derogación de la Ley de Partidos Políticos al constituir un instrumento jurídico sobre el que se sustentan las vulneraciones de derechos fundamentales”.

3.-. “La desaparición de todo tipo de amenazas, presiones, persecuciones, detenciones, y torturas contra toda persona por razón de su actividad o ideología política”

Frente a estos acontecimientos es el momento de pedir que se den pasos para que las palabras no se queden sólo en eso, en palabras, porque el afianzar este nuevo escenario que se está creando en nuestra sociedad requiere del compromiso y la aportación de todos y todas.

Es por ello que queremos hacer una llamada a la movilización de la ciudadanía vasca, para que nunca más vuelvan a repetirse hechos similares y para que entre todos y todas logremos la paz y la normalización política en nuestro Pueblo.

Por todo lo anterior, se presenta esta moción al Ayuntamiento - Pleno de ZUMAIA para su aprobación:

1.- Mostrar su compromiso para ayudar a desarrollar y consolidar el proceso abierto en Euskal Herria que culminará con

politiko, demokratiko eta baketsuetatik normalizazioa eta bakea iritsita amaituko da, eta bitartean prozesua oztopatzeko ahalegin guztiak salatuko ditugu datozen lekutik datozela ere. Era horretan, ETArri eta Espainiako Gobernuari eskatzen diegu, bortxakeriarik gabeko agertokia bermatu eta arian-arian normalizazio politikoa iristeko behar diren erabaki eta ekimenak har ditzatela.

2.- Ikasle Abertzaleak eta Gazte Independentistak taldeetako kideen atxiboketak berriaz salatzea. Biak ere Gazte Herriako partaide dira, hau da, Gernikako Akordioa sinatu zuten erakundeetakoak eta euskal agertoki politiko berna finkatzen inplikaturakoetakoak. Era berean, Udal honek elkartasuna adieraztea atxilotuen familiei.

3.- Atxilotutako pertsona hauek jasan duten inkomunikazio egoera erauzi dadila, zigorgabetasunezko espazio ilunak sortzen dituelako eta horrek torturak eta tratu txarrak errazten dituelako. Era berean, tortura eta tratu txarren prebentziorako neurriak sistematikoki ezar daitezela, bereziki, atxiloketa instalazioak etengabe bidez zainduta egotea eta atxilotuek aztertuko dituen medikua aukeratzeko modua izatea.

la normalización y la consecución de la paz a través de vías exclusivamente políticas, pacíficas y democráticas, denunciando todos y cada uno de los intentos, vengan de donde vengan, para intentar torpedearlo. De esta manera demandamos a ETA y al Gobierno español la toma de las decisiones e iniciativas que permitan configurar un escenario de no violencia con garantías y de normalización política progresiva.

2.- Denunciar, en concreto, la detención de integrantes de Ikasle Abertzaleak y de Gazte Independentistak, que forman parte de GazteHerria, organizaciones firmantes del Acuerdo de Gernika e implicadas en la consolidación del nuevo escenario político vasco, al tiempo que trasladamos la solidaridad de este Consistorio para con sus familias.

3.- Exigir la completa erradicación de la incomunicación, a la que han sido sometidas estas personas detenidas, ya que genera espacios opacos de impunidad que favorecen la aparición de torturas y malos tratos. Del mismo modo reclamamos la aplicación sistemática de medidas de prevención de la tortura y los malos tratos, especialmente la video vigilancia continua de las instalaciones de detención y el

4.- Herritarrei dei egitea egoera salatzekeo deitu diren mobilizazioetan parte har dezaten.

5.- Mozio honen edukia Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko taldeei, Lehendakariari, Nafarroako Gobernuako presidenteari, Espainiako Barne ministroari eta Espainiako Gobernuako presidenteari helaraztea.

examen de los y las detenidos/as por médicos de su elección.

4.- Hacer un llamamiento a la ciudadanía a participar en las movilizaciones convocadas para denunciar esta situación.

5.- Remitir el contenido de la presente moción a los diferentes Grupos del Parlamento Vasco y Navarro, al Lehendakari del Gobierno Vasco y al Presidente del Gobierno Navarro, al Ministro del interior del estado español y al Presidente del Gobierno del estado español.

Hauxe, guk aurkeztutako mozioa, bateren batek zerbait esateko, PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai, arratsalde on denori,

Hasteko, atzo egin zen bozeraemaileen batzordera ezin izan nuen etorri, besteak beste, gauean zabaldu nuelako plenorako dokumentazioarekin batera zetorren deialdia, atzoko bilera hortarako eta ez nintzen ohartu deialdiaz gauerarte, hau da, bilera pasa arte.

Gure asmoa zen eta da onartzen baldin baduzute ba... mozio alternatibo bat aurkeztea, badakit ohikoa izaten dela gauza hauek aurretiaz azaltzea, baina, ikusita ez dela posible izan ba... eskaera hori egin nahiko genuke, beste ezer baino lehen, eskerrik asko,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aurreko batean ere, horrelako zerbait gertatu zen eta ontzat eman zen, baina noski, gure artean erregla batzuk eman genuen, oraindik, akordatzen naiz, legealdi honen hasieran, hain zuzen ere mozioak aurkezteko garaian ez genuelako nahiko denboraz aurkeztez eta eskatu zitzaigun espresuki PNVtik gainera deialdia egin aurretik edukitzeko borondatea ba... bozeraemaileen batzordea lehenago jartzea.

Esan nahi dut eskaera hori eta gero kontrako jarrera aurrera eramatea, ez zait bidezkoa iruditzen,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Hain zuzen, Iñaki, eskaera ez da kontrako jarrera baizik eta juxtu ildo hortatik dihoana, ze... gai zerrendarekin batera bidali baldin bazenuten bozeraemaileen batzorderako deialdia, hori da, gai zerrenda dagoeneko egina zegoelako eta gai zerrenda hortan orain defendatzen duzuten mozioa sartuta zeneukazutelako, beraz, ezin da jakin hori aztertu aurretik edo gai zerrenda egin aurretik moziorik egongo zenik bestelakorik aurkezteko,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, baina zuk badakizu, baita ere ondo, hori, hain zuzen ere egiten dela, denok aztertu dezagun gutxienez, egun bateko aurrerapenaz zein den sartzen den mozioa, eta hau gutxienez badago eta ez hori bakarrik, aldez aurretik ere beste mozio batzuk egon izan dira, nahiz eta plenoaren deialdia bidali, onartu direnak, aurreko kasuan gertatzen den bezala, baina gutxienez, beste denak egun bateko aurrerapenez, bageneukan jakitea zertan oinarritzen zen mozioa, baina orain besterik gabe mozioak onartzea ez zait bidezkoa iruditzen,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV):
Bale,

Bidezkoa izango litzateke, baina ez bada onartzen ba... hortan geratu beharko dugu, besterik gabe, irakurriko dut aurkeztu nahiko genukeen mozio hori ba... gure erantzunaren mami bezala, nahiz eta botatzeko aukerarik ez izan eta oraintxen irakurri duzuen mozioarekiko ba... bueno, alternatibo bat geneukanez, ba.. ulertzen da ez dugula bat egingo mozioarekin. Abstenitu egingo gara, mozioa azkenean bere sarrerak agerian lagatzen duen bezala da... zeurona da –evidente-, zeurok aurkezten duzue eta egiten duzuen da zuek eta beste zenbait eragile politikok Gernikan sinatutako akordioaren azalpen bat eta akordio hortan agertzen diren hainbat printzipioen aldarria. Erabat zilegi deritzogu, baina gu ez ginen Gernikan egon eta beraz, ba... ez dugu baiezkorik emango, eta nik usten dut hortik haratago ez duela gehiegi luzatzea merezi, eskerrik asko,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: PSOE,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Sí, buenas tardes a todos,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV):
Barkatu, ahaztu egin zait azkenean... esan dut, gure mozioa zen hori,
irakurriko nuela eta ahaztu egin zait irakurtzea, beraz, barkatzen baldin
badidazue minutu batetan irakurtzen dut, bale? Eskerrik asko,

Euskadin, une politiko berria bizi dugu, giza eskubide ororen errespetua eskatzen du gizartearen gehiengoak, giza eskubideen zaurzapena baztertzen eta politika eta gizartearen bizikidetasun iraunkorrerako oinarriak ezarriko dituen -Euskal herriak bere etorkizuna erabakitzeke duen eskubidearen printzipio demokratikoa oinarri duen- akordio politikoa eskatzen.

Euskal gizartea murgildurik dagoen prozesu politikoaren konponbide zuzenaren lorpenean, arduraz jokatzeko eskatzen duen itzaropena.

Etengabeko oinarrizko eskubideen zapalketek- torturek, lege kanporaketek eta adierazpen eskubideari erasoek, pertsona nahiz ondasunen aurkako biolentziazko jardunek- ez diote inolaz ere laguntze, gure herriak hain beharrezko duen soluzioaren bilaketari.

Politikaren epaitzeak sortzen duen ziurgabetasun giroak, non prozesuari buelta eman zaion hainbat epai-prozesutan

Euskadi vive un nuevo momento político condicionado por la exigencia social mayoritaria de respeto a los derechos humanos, tanto individuales como colectivos, desde el rechazo a la vulneración de los derechos humanos, y desde la exigencia de la búsqueda de un acuerdo político que sienta las bases de una convivencia social y política duradera, basada en el principio democrático del respeto al derecho a decidir del pueblo vasco.

Una expectativa que exige actuar con responsabilidad, en aras a una correcta resolución del proceso político en el que está inmerso la sociedad vasca.

Las vulneraciones de derechos fundamentales; torturas, ilegalizaciones, ataques a la libertad de expresión, derecho de libre manifestación, coacciones, violencia contra bienes y personas, no contribuyen a la búsqueda de la solución que nuestro pueblo reclama y necesita.

Ni el clima de inseguridad que genera la judicialización de la política, por los numerosos procesos judiciales en las que se

antolakuntzak eta jokabideak kriminalizatu dira “ dena ETA da” argudiopean, ez du asko laguntzen eskatzen dugun eskenatokian.

Horiek horrela, eta azken atxiloketen aurrean, udal honen plenoari ondorengo MOZIO hau aurkezten diogu eztabaida eta onar dezan:

1.- Indar eta adierazpen politiko orok dute, baldintza berdinetan, Euskal herriko erakunde guztietako bizitza politiko eta sozialean parte hartzeko eskubidea, bakoitzak hiritargoak eskaintzen dion ordezkariaren arabera.

2.- Sistema demokratikoan, errugabetasun-presuntzioa eta prozedura-bermeak oinarritzko eskubideak dira eta errespetatuak izan behar dira. Zuzenbide-estatuan pertsonak bere jokaerengatik epaitzen dira, jokaera hauek oinarrian delitu badira.

3.- Oinarritzko eskubideak pertsonen ondasuna dira. Eta atxiloturik dauden pertsonak ere eskubide horien jabe dira, leporatzen zaienaren errudun izan hala ez izan.

4.- Gure herrian bizi dugun gatazka politikoari eta baketzeari irtenbidea bilatzeko bideak, giza eskubideen benetako defentsa

ha invertido el proceso, para criminalizar organizaciones y actuaciones partiendo del principio de que “Todo es ETA”, favorece el escenario que reclamamos.

Por todo ello, y ante las últimas detenciones, se propone al pleno de esta corporación para su debate y aprobación, la siguiente MOCION:

1.- Todas las fuerzas y expresiones políticas tienen derecho a participar, en igualdad de condiciones, en la vida política y social de todas las instituciones de Euskal Herria, de acuerdo con la representación otorgada por la voluntad de la ciudadanía.

2.- En un sistema democrático, la presunción de inocencia y las garantías procesales son derechos fundamentales y deben ser respetados. En un estado de derecho las personas son enjuiciadas por sus actos, siempre que esos actos sean constitutivos de delito.

3.- Los derechos fundamentales son patrimonio de todas las personas. Y las personas detenidas son también titulares de esos derechos, sean culpables o no de lo que se les imputa.

4.- La defensa de los derechos humanos de todas las personas y el respeto al derecho que a este pueblo le asiste de decidir su

konprometituan eta herri honek bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko duen eskubidearen errespetuan ditu oinarriak.

5.- Bakea eta euskal gatazka politikoaren ebazpena, euskal gizartearen nahiak dira, eta gizarte eta politika eragile guztiei eskatzen zaie, egungo prozesu politikoa atzeraezin egingo duten pausoak emateko konpromisoak

futuro libre y democráticamente, son los pilares desde los que debemos abordar la solución al conflicto político y de pacificación que vivimos en este país. Siendo esto así, está de sobra toda estrategia basada en la vulneración de los derechos.

5.- La paz y la resolución del conflicto político vascos son anhelos de la sociedad vasca, que exigen de todos los agentes sociales y políticos compromisos para dar los pasos que hagan irreversible el actual proceso político.

Hauxe zen, eskerrik asko

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Os vuelvo a repetir buenas tardes a todos,

Viendo las dos, pues lo siento que no haya sido posible entrar a... digamos a ponerla en el peso de la votación las dos; lógicamente nosotros aunque podemos tener ciertas diferencias con el escrito presentado por el PNV, pero entendíamos o entendemos ahora que la hemos visto, que recoge mucho mejor la voluntad real de lo que está pasando y lo que pretendemos que pase en un futuro y por lo tanto hubiera sido... por lo menos, no rechazada por nuestra parte.

Sin embargo, nos encontramos con la moción que es la que nos toca debatir y lógicamente pues vemos que sigue incidiendo en dos, tres, males que siempre se está incidiendo en este tema una y otra vez,

lo primero, pues bueno... todo el mundo sabe que el papel admite todo lo que se ponga y que las palabras como se suele decir, -las lleva el viento- y que por lo tanto las palabras si no vienen acompañadas de hechos no son más que palabras con todo lo que de importancia tiene la palabra; pero por desgracia en este caso, se desvirtúa como en otros muchos ya por desgracia, no? Y digamos de alguna manera marcar esos temas, son en principio, puede exigir lo que no está uno dispuesto a hacer.

El hecho de expresar con la palabra las voluntades si luego no se ejecutan con hechos, no sirve; lo que se expresa en palabras se tiene que demostrar

con hechos, es por lo tanto, exigir a los demás lo que no está dispuesto uno a hacer, ya digo, no es posible, éso por una parte

Si lo que pretendemos es una negociación no podemos nunca aunque sea un escrito y la palabra he dicho anteriormente que en este caso sirve de poco, decir en la misma moción por dos veces “exigir” si uno va a negociar y se va a sentar con otro nunca puede exigir de antemano nada, porque entonces no está negociando, está imponiendo, está imponiendo, éso es el segundo tema y otro de los temas que daría un vuelco totalmente cuando haceis mención en el punto primero de lo que sería el acuerdo de la moción:

“De esta manera demandamos a ETA , éso es lo que hace falta, al Gobierno Vasco, digo, al Gobierno español

demanda de qué tipo? Si lo único que aquí hay que hacer es abandonar las armas y entonces se podrá hablar ó lo que sea, pero demandar? De qué?

No puede haber ningún tipo de negociación política por el tema del abandono de las armas bajo ningún concepto y volveis a exigir en el punto tercero ó volveis a expresar la palabra “exigir” y vuelvo a repetir que cuando uno exige, no negocia, por lo tanto, nuestro voto va a ser negativo,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Kaixo, arratsalde on,

Behin eta berriz zoritxarrez, gai hontaz hitz egin beharra daukagu, orduan, gauza hauek bakarrik Euskal Herrian gertatzen dira eta egia da honi –nahikoa dela- esan behar dugula, behingoz

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Perdona un momentito a ver si coge...

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Ahora, si?

Esaten ari nintzen zoritxarrez, berriro gai hontaz hitzegin beharra daukagula eta ez dugu iraganean lagatzen gai hau eta ja –nahikoa dela- esan behar dugu, horrela ezin da jarraitu eta erderaz esaten den bezala, -es inocente hasta que se muestre lo contrario- Euskal Herrian ezik, beste toki guztietan igual izango da, baina hemen ez, hemen lehendabizi kasu hauetan ETAkideak dira eta puntu eta tratamentu batzuk ematen dira ez direnak batere bidezkoak, nahikoa dut

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Arratsalde on guztioi,

Alde batetik, pleno hontara arte zain egon beharrik ez zegoen, mozio alternatiborik aurkezteko, nahiz eta atzo Gobernu... bozeraemaileen batzordera etortzeko aukerarik ez izan ba... bueno gaur emailak, telefonoak funtzionatzen dute eta borondatea izanez gero aurkezteko aukera egon, bazegoen eta orain artean aurkeztu ez izana ba... bueno aurkeztu nahi ez delako ere izango zen neurri batean, bestela gu hemen egoten gara, goizero-goizero, arratsaldero-arratsaldero, eta elkarren berri usten dut aspalditik daukagula.

Beste alde batetik, benetan azkenengo egun hauetan Zumaian ikusi ahal izan ditugunak ikusi eta gero, gure mozioa dela eta erredakzioa ba.. igertzen dela gurea dela eta Gernikako ituna zuek ez duzutela zeuena egin ba... argudiatzea mozio honi abstentzioa eman behar diozutela argudiatzeko ba.. niri behintzat argudio bezala ez zait onena iruditzen, baina bueno... hori erabili duzute.

Nik usten dut gertatu direnak gertatu direla gaur hemen elkartasun irudi bat emateko aukera eduki, bageneukala, baina jarri dituzuen argudioak erabilia gaur abstentzioan geratu behar baldin bazarete, ba.. bueno zuek jakingo duzute norekin jartzen zareten ados, noiz jartzen zareten ados, eta zertarako jartzen zareten ados, baina Euskal Herrian, Euskal Herritarrekin ados jartzeko dituzuen zailtasunak beste leku batzutan ez ditugu ikusten, hogeit hamar konpetentzia ekartzeko, orain dela gutxi, ados jarri zineten Espainiako Estatuarekin eta hogeit hamar gazte atxilotu eta inongo berme juridikorik gabe beroiek egin nahi zuten guztia egiteko parada izan dugunean, gure artean berriz ere ados jartzeko zailtasunak eta argudioak benetan, benetan penagarriak, bueno... penagarriak, benetan ez ulertzeko moduak, penagarriarena kendu egingo dut, nire ustez, nik ez ditut... ez ditut behintzat ulertzen,

Herrian, aste, aste berezia izan dugu Polizia Nazionalea bixitan etorri zaigu eta ez dut uste Polizia Nazionalea negoziatzera etorri denik, ez dut uste Polizia Nazionalaren borondatea inorrekin negoziatzea izan denik, Polizia Nazionaleak eskubide batzuk zapaldu ditu eta beste batzuk zapaltzen jarraitzeko borondatea zuen, Eskubideak exijitu egiten dira, betetzen ez direnean exijitu egiten dira, ez dira negoziatzen, guk gure eskubideak ez ditugu inorekin negoziatuko, guk gure eskubideak exijitu egingo ditugu eta zapaltzen dituenari exijituko dizkiogu, zeren, honen guztiaren atzean eskubideen urraketa sistematiko bat dago, guzti honen atzean Euskal Herriaren eta Euskal Herritarren eskubideen urraketa sistematikoa dago, guzti honen atzean jokabide antidemokratiko bat dago inongo akusazio ba... pertsonalik gabe, inongo akusazio orokorrekin ez? Erakundeek egiten dituzten balizko delituengatik, Grande Marlaskak hala esan du bere autoan

ba... gazte mugimendu hau dela ba... Gernikako ekimenetik kanpo geratu edo Ezker Abertzalea jorratzen ari diren bideetatik urrutien dabilen mugimenduari kolpe bat ematera etorri direla, gazte mugimendu honek Gernikako ekimena sinatu duenean, baina nor delinkitzen du pertsonak edo erakundeak? Eta zein dira pertsona hauei..... Zergatik? Zer eragozten zaie? Zer delitu egin dituzte? Akusazio orokorrak; erakunde eta aktibitate politiko batean dabilzan gaztediari Euskal Herriaren eskubideen defentsan dabilzan gaztediari beste kolpe bat ematera etorri dira, zoritxarrez, Grande Marlaskaren aurretik pasatu direnak, berriro ere tortura salaketak, torturatuak izan direla adierazi dute epailearen aurrean baina epaileak berriro ere entzungor egin du; entzungor egin du berriro ere Igor Portu eta Mattin Sarasolaren tortura salaketekin egin zuten bezalaxe eta hor ere esango duzute demokrazia funtzionatzen duela eta hori ere epaitzen ari direla eta hemen norberak berea jasotzen duela, baina hori ez da horrela; Kontua da, epaiketa hau ematen ari bada, ez da bere garaian ba... Estatu Demokratikoak funtzionatu zuelako, salaketa horiek eman eta gero Alfonso... (nola deitzen zen, gure orduko Barne Ministroa) José Antonio Alonsok esan zuen ETAREN eskuliburua zela eta nola ez ETA kideak beti salatzen zituztela, tortura salaketak, orain ere berdina esango dute batzuk, ez? Gazte hauek torturak salatu zituztela eta ETA kideak direla eta klaro, eskuliburu hori ba... oso ondo datorkio Gobernuari,

Baina kontua da, Mattin Sarasola eta Igor Porturen kasuan, hurrengo egunean filtrazio batzuk eman zirela eta txosten mediku batzuk filtratu zirela eta Barne Ministroak, bere hitzak jan egin behar izan zituen eta hurrengo egunean beste diskurtso desberdin bat jantzi behar izan zuen.

Kontua da, Barne Ministro hori, Barne Ministro izateari hortik gutxira utzi ziola, ez dakigu honengatik zen? Edo beste konturen batengatik.

Kontua da, gaur Fiskalak, Donostiako Auzitegian berretsi duela bere eskaera, kondena eskaera dela Igor Portu eta Martin Sarasolak torturak jasan zituztelako baina kontua da Auzipetu zituztela auto-inkulpazio batengatik, komisialdegian egin zuten auto-inkulpazio batengatik, nahiz eta esan auto-inkulpazio hori torturak jasan zituztelako egin zutela, eta orain daude kartzelan ETA kide direlako eta orain ari dira epaitzen auto-inkulpazio horiek lortzeko erabili zituzten metodoak,

Nola liteke Estatu Demokratiko batean norbait kartzelan sartzea, nahiz eta errekonozitu zantzuak daudela torturatuak izan direla? Hau ez da Estatu demokratiko bat, eta demokraziaz eta negoziazioaz ba... nik usten dut lekzio gutxi jasotzeko moduan gaudela, nik usten dut gure eskubideak zapaltzen dituztela, ez dagoela inondik inora zalantzan eta gure eskubideak defendatzen dituztenak ba... horiek jasatzen dituzte lehendabiziz ba... eskubideen urraketa.

Orain dela urte gutxi lau gazte Nafar kartzelatik atera ziren, bi urte kartzelan eman eta gero; bi urte eman zituzten kartzelan UPN-ko zinegotzi

Nafar bat akabatu omen zutelako, bi urte kartzelan, hilketa batengatik, ETA kideak ziren,

Kontua da, Frantzian beste operazio batean lortu zuten informazio-dokumentaziorengatik, ¡kontxo!, lau gazte hauek ez zirela ondorioztatzen zen eta Frantziako Gobernuak igorri zion informazio guzti hori Estatu Espainolari eta orain lau gazte horiek kalean daude, Zer egin behar da?

Pertsona bati berak akabatu ez duen norbait, berak akabatu duela esateraino eramateko, zer egin behar zaio? Horren demokratikoa den Estatu hontan.

Kontua da, urrian hiru gazte atxilotu... hiru gazte ez, hiru gipuzkoar atxilotu dituztela, bat kalean da, eta horietako bat orain da berriro Nafarroako zinegotzia akabatu duena,

Kontua da, hauek ere zoritxarrez, torturak salatu dituztela eta Zumaian Beñaten bila etorri ziren, eta Zumaian ba... badakizkigu gauza guzti hauek eta badakigu Polizia Nazionala ez dela etortzen negoziatzera eta bost egun ilun horietan ez dela negoziazioetaz hitz egiten, baizik eta, torturatu egiten zaituztela eta torturatu egiten zaituztelako eta tortura horiek ez jasatzeagatik gaur Beñat ihes egitera kondenatuta dago eta gaur Beñat ez dago Zumaian ez dakigu non dagoen, baina dagoen lekuan ba... espero dezagun ondo egon dadila, baina gaur Beñat ihes egitera kondenatua dago, hemen eskubideak errespetatzen ez direlako, beraz, guk argi ikusi dugu, Zumaian azkenengo egunetan zer nolako adierazpen, zer nolako mobilizazio, zer nolako manifestazio egin diren azkenengo hilabeteetan Zumaian, azkenengo urteetan Zumaian ikusi ez bezalakoak eta Zumaiarrek argi adierazi dute nolakoa den Beñat, argi adierazi dute ze maitasun dioten Beñati eta argi adierazi dute zer egiten ari diren Beñati, beraz, hemendik muxu haundi bat dagoen lekuan dagoela, Beñati eta aprobetxatu dezagun gaur hemen mozio hau aurrera aterata, dagoen lekuan, dagoen lekuan, ba... behintzat bere udaletxea, bere lekuan egon badagoela ere erakusteko, eskerrik asko,

(Jende artean, txalo zaparrada egon da)

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bai, nik... oso laburra izango naiz, ia gauza asko esan direlako, bakarrik, bi gaiak atentzioa deitu didate, alde batetik PNV-rengandik ez nuelako espero, abstentzioa, ez nuen espero, nik usten nuen aldeko botua emango zuela, horrek aurrengo harridura, baina bigarrenak mozio alternatiboa aurkeztea are gutxiago espero nuen, ez dakit, zertan oinarritzen duzuen zuen mozio alternatiboa eta oraindik ez dut ulertu, irakurri duzu eta entzun dut, baina zertan oinarritzen duzuen honi mozio alternatibo bat aurkezteko?

Ez dut ulertu, nik ez dut ulertu,

Bueno eta Emilianori ba.. gauza gutxi zeren.. Andoni, gauza asko esan ditugu ez? Ezin dela exijitu zion berak ezer, baina Andonik ere esan du, exijitu behar da beti, giza eskubideak tartean daudenean nola ez dela exijitu behar? Noski, exijitu behar dela? Gainera ere hitz batean eta erderaz jartzen du –Exigir la completa erradicación de la incomunicación- éso..., hori exijitu behar da beti, vamos.... Giza Eskubideak... Giza Eskubideak dira, hori, hori ez da negoziazio batean sartzen, hori Giza Eskubidea da eta kitto ez? Eta exijitzen da baita ere, Andonik esaten didan bezala Nazioarteko Torturen gaietako zera... bereziak ere egiteko ez? Eta irakurri besterik ez dago ze gauzak jartzen diren?

Orduan, eta Emiliano eta azkena, pentsatu ezazu hilabete batean zenbat gauzak aldatu diren; zergatik akordatzen naiz beste mozio baten inguruan, aurreko hilabetean aitatzzen zenituela, aitatzzen zenuela, nola ETAk ez zuen ezer egiten eta hemen dena berdina zela eta ez zegoela mugimendurik e.a.; efektibamente hemen atxiloketak daude eta badakigu Gobernuak zertan ari den, orain baita ere entzun izan diogu Zapaterori, esan zuen –no caer en balde el movimiento de la Izquierda Abertzale- eta nik aitatu nizun, espero nuela Gobernuak, Espainiako Gobernuak batez ere lenguahean aldaketaren bat espero nuela lehen bait lehen egitea, eta uste nuenaren baino azkarrago zeozer berezia esan du, -en el fondo- ez, porque ikusten dugu berdina egiten ari dela, baina zerbait berezia esan du, alegia, honekin esan nahi dudana da Emiliano, askotan ez dela horren radikal jarri behar posturretan, eh! eta gauza bat dela komunikabideak esaten dutena eta postura politiko ofiziala, baina hemen gaudenak e.a. eta herrian bizi garenak eta ikusten duguna zein den giroa e.a. askotan hori baino irekiago egon behar dugula errealitateari eta guk ere gure barruan eta gure etxean eta hori da nik, nire gomendioa, noski, ba... egin beharko genukeena bakoitzak, ikusita errealitatea bakoitza zein den, eta besterik gabe hitza emango dut berriz ere, azkenengo turno bat zabalduko dugu eta gero botatzera pasako gara, M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Barkatu, eh? ezingo dut ukatu denborarik ez dugunik izan, o sea, nahiko denbora larria, baina nik bai aitortzen dut atzo gaueko hamarrak arte ez nuela plenoko dokumentazioa zabaldu, atzo gauean ez neukan mozio, dena delako hori aurkezteko aukerarik, eta egunean zehar ere nahiko zaila egin zait, ez dakit, esplikazio bezala balio duen eta ez dakit ere esplikazio hauek eman beharko nituzkeen, baina hortaz hasi zaretenez...

Eta bigarrenik, guk ez omen daukagu akordioetara iristeko gaitasunik eta ez omen duzue ulertzen zer dela eta aurkezten dugun beste mozio bat eta

ez dugun zuen mozioarekin bat egiten..., bueno... ba... nik hori ere errespetatzen dut, baina iruditzen zait horrela hitz egiteak nolabait adierazten duela “edo guk esandakoarekin hitzez-hitz bat zatozte edo ez duzue nahi akordiorik”, eta ez dakit ba... jarrera hori ere horrela izaten den, ez? Bakoitzak dauka eskubidea, noski, eta aukera ba... bere hitzak erabiltzeko eta egokien iruditzen zaizkion horiek aurkezteko, errespetu osoz, eta egia da, hortara joaten baldin bagara, “dena ETA da”, esatea ez dela onargarria, mila aldiz salatu dugula. Egia da, alderdi eta aukera politikoen ilegalizazioa gehiegikeria antidemokratiko bat dela, eta mila aldiz salatu dugu. Egia da Zuzenbide Penalak, berezkoak, zituen -garai batean edo behintzat horrela aldarrikatzen zituzten- berme oinarritzkoak erabat irauli zirela Estatuko, Espainiako Estatuan aspaldi, eta akusazioak, partikularrak eta pertsonalizatuak izan beharrean multzoka eta taldeka eta “entornoka” egiten direla, oraindik orain. Eta hori erabat logika beraren kontra dihoan kontu bat dela. Egia da torturak gertatu direla eta gertatzen direla ere, akaso, eta hori bai dihoala demokraziaren, Giza Eskubidearen eta Giza Legearen kontra zuzen-zuzenean. Baina, baita, egia da norbaitek hil zuela Nafarroako zinegotzi bat... eta hori esatea badirudi lekuz kanpo geratzen dela eta ez dela txukuna eta neuri ere ez dit gogo haundirik eman hori esateak, baina hori ere egia da. Orain, hark justifikatzen du gainontzekoa? Ez.

Baina egia da, orain arte bizi izan garen saltsa hontan ba... gauzak gehiegi nahastu izan direla beti, gehiegi “kontestualizatu”, “deskontestualizatu”, norberak bere kabuz bere borroka partikularrak egin dituela, alde batekoak zein bestekoak. Egia da Herri honek, mila eta bostehun aldiz, ez, mila eta bostehun miloi aldiz, exijitu duela Bakea behar duela eta Bakea merezi dugula. Eta egia da ere, Bakearen atarian gaudela. Hori dena egia izanik baita egia da Ezker Abertzaleak egindako hausnarketa prozesu luze eta sakon baten ondorioz iritsitako egoera batean gaudela orain, eta Ezker Abertzale Politikoa aurrez-aurre jartzen zaiela ETA-ri, hain zuzen, zuek aurkeztutako mozio hontan ere aipatzen dituzuen exigentzi horiek beste batzuei ezezik, honi ere egiten; eta hori da inoiz orain artean ikusi ez duguna. Pozten gara eta ongi etorria ematen dizuegu bide politiko eta demokratiko hutsetara. Eta hori dena egia izanik, Herri honek daukan itxaropena da berriz ere ez daitezela gertatu alde batetik zein bestetik, ezagutu izan ditugun gehiegikeriak eta nik usten dut benetako borondatea hori baidela eta esaten dudan bezala horren atarian gaudela. Eta Beñatek eta bere familiak momentu hontan bizi duten egoera ba... lehen bait lehen konpondu dadila eta bere onera etorri dadila eta guzti hauek bukatu daitezela hori da guk adierazi nahi dugun nahia, eskerrik asko.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Zer edo zer gehiago esateko?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Bueno, ha dicho que soy radical, si radical es reflejar lo que hoy día está encima de la mesa, soy radical; pero como considero que no es así, no me doy por aludido, de todas las maneras, si mañana ésto cambia entonces hablaremos de lo que tengamos que hablar, pero hoy también tenemos que hablar de lo que hay que hablar, y éso es así, yo dije en su momento que no había movida y sigo pensando que no ha habido ningún sólo movimiento en el mundo de ETA, y ésa si no... a ver dime que otra variación ha habido desde esa discusión que tuvimos aquí en este pleno también a hoy, ninguna, ninguna, ¡ojala, la hubiera! Pero hoy por hoy, ninguna, por lo tanto, en tanto en cuanto no se den, la situación es la que es,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Bueno, nik gauza bat esango dut Beñaten alde, bera ezagutu dut, bere pelotan irakaslea izan naiz eta nik ez dut sinisten ezer egin duenik, hori esan da, zoritxarrez, baita ere ezagutzen dut jende asko kartzelan urte batzuk egin dituenak eta gero ezerre kargurik gabe kalera irten direnak, eta ez zait batere harritzen egoera hontan ihesita egotea, eta ea gauzak ondo konpontzen diren,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bueno, nik egia esan, usten dut pena ez duela merezi gehiago horrelako debate antzuetan hurbiltzea, gaur hona ekarri dugun mozioa bozkatzea, ba... ahalik eta pixkorrena pasatzen garen eta ez dugun horrelako debate antzuetan denbora gehiago ematen, baina bi hitz nik behintzat esan nahiko nituzke, Aurkezteko denborarik ez duzute eduki, baina itzultzeko... itzultzeko denbora eduki duzute eta Alderdi Sozialistari mozioa itzulia eman diozute, hemen, ba... bueno... gauza batzutan enpeño gehiago jartzen ditugu beste batzutan baino eta ongi etorriak ematen hasten baldin bazarete, badirudi, alderdien legea ere egokitzen ematen duzute edo alderdiaren legea salatzen dugu edo ongi etorria ematen diguzute, baina biak batera ezin dira eh? Bienvenidos al lado de los demócratas, eta gero alderdien legeak salatzea, nik usten dut, hor kontraesanak ere egon badaudela, eta bueno... besterik gabe ni ia bozkatzera pasatuko nintzen

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bakarrik esan, oraindik ere ez dudala argumentaziorik aitu PNV-ren aldetik zergatik mozio alternatiboa aurkezten duen, eta ez dut ulertu gainera ere, baina tira..

Eta Emilianori bakarrik esan, espero dudala, ba... gauzak aldatu direla, seguru asko egun hauetan gehiago aldatuko direla, espero dudala datozen egunetan gehiago aldatuko direla eta denborak gero bakoitzak jarriko gaitula gure tokian, erantzunkizunez jokatu behar delako eta Herriak merezi duelako erantzunkizunez jokatzeari hainbeste urteren ondoren, sufritu duguna sufrituta, eta alderdikierietatik haratago ikuspegi Nazional bat eta historiko bat eduki behar dela prozesu guzti hontan, hori hala, gu behintzat, saiatu garena egiten, hemen bakoitza ez dela norbera bere buruaren arazoia jabe, baizik eta ziur aski arazoia konpartitua izango dela toki guztietan, baina hain zuzen ere, hori jakin behar dugula egiten guztion partetik eta estrategi alderdikoiak iruditzen zaidala alde batera lagatzeko garaia dela batez ere egoera berri hontan eta bukatzeko adierazi, nahiz eta partikularki ere egin nuen, Beñat Lizeagaren familiari nire elkartasuna adierazteko eta esateko Beñatekin ere nik izan dudala aukera batez ere Gaztetxeari buruz hitz egiteko, oso pertsona zentzuduna eta nahiko nukeela baita ere, eta pentsatzen dut, baita ere egongo direla, noski, baina bera bezalako pertsona zentzudun asko bilatzea herri hontan, Besterik gabe, bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Abstentzioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Abstentzioa, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): En contra,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontra, ARALAR?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde eta EAk ere alde

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 5 botu (3
TALDE MISTOA; 1 ARALAR
/ALTERNATIBA; 1 EA)

Aurkako botuak: 2 botu
(PSE-PSOE)

Abstentzioak: 4 botu (EAJ-
PNV)

LEHENENGOA: AZKEN
OPERAZIO POLIZIAREN
INGURUKO PROPOSAMENA
TALDE MISTOAK ETA EAk
AURKEZTURIKO ONARTZEA

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 5 votos (3
TALDE MIXTO; 1 ARALAR
/ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 2 votos (PSE-
PSOE)

Abstenciones: 4 votos (EAJ-
PNV)

PRIMERO: APROBAR LA
PROPUESTA PRESENTADA
POR EL GRUPO MIXTO Y EA
SOBRE LA ULTIMA
OPERACIÓN POLICIAL

Beraz, onartutzat ematen da mozioa,

HIRUGARREN PUNTUA: PERTSONALA.

Eta eskerrik asko, bide batez, hona etorri zareten publikoari,

PERTSONALA, badakizue dagoeneko Pertsonal batzordean horrela eztabaidatua izan zelako eta diktaminatua ere bai, baina deialdiarekin batera bidali zaizue, berez, diktamena joan zela orotara, o sea, dena bat egina.

Aurreko pleno batean gertatu zen bezala beste gai batekin, iruditu zaigu komenigarria izango litzatekeela, nahiz eta irizpenean dena era bateratuan bozkatu izan ba... banan-banan zeuden lau gai... pertsonalean zeuden lau gai ezberdin horiek banan-banan ekartzea eta banan-banan bozkatzea, beraz, hori horrela izanik aurrengo puntuari ekingo genioke eta aurrengo puntua pertsonalean izango litzateke ba...

LANGILEEN LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA baina kasu hontan Ludotekako Hezitzaileen lanaldia %50etik %60ra pasatzea.

Honen aurrean, Andonik zerbait esateko Pertsonal batzorde buruak?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Antes se lo he expuesto al Secretario, lo digo porque me lo ha mandado decir Pilar y pedía que este punto se dejase ante la no presencia de ella y que estaba interesada en debatir el tema que se dejase para el Pleno Extraordinario, es lo que me ha pedido y yo lo hago, si es posible bien y si no....

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, eskaera berdina egin dit niri ere, orain dela ba... orduerdi bat edo horrela, bakarrik gogoratuko nahiko nuke gauza bat, gai hau dagoeneko aurreko plenotik datorren pleno bat dela, aurreko plenoan eztabaidatu behar zen gai bat da, atzeratu egin genuen, gai garrantzitsua batez ere, eta gero Andonik aipatuko du hobeto, batez ere, lanpostu batzuk behar dutelako onarpen bat edo ez, baina behar dutelako tratatzea izatea eta bigarren

Aitatu nahiko nuke, ez dut orain publiko hemen esango mikrofonoetan, baina atzerapenaren arrazoiak nik usten dut badakizkigula aurrekoak zein izan ziren eta ez zaidala iruditzen ba... oso gai berezi bat izan zen eta nik behintzat, guk hemen gaudenak ontzat hartu genuen, baina ez zait iruditzen gaur egun, jakin da atzerapen hori egon dela eta salbuespen bat egin genuela berriz ere salbuespen egoera justifikatzen duenik dagoenik, eta gaiak, berez, nahiko garrantzia badaukanez eta jakin da baita ere beste zinegotzi batzuk, Pili aparte, beste zinegotzi batzuk ere falta direla, ez nuke nahiko hori moda batean bihurtzea, ni ez natorrelako eskatzen dut, puntu hau kentzea, iruditzen zait hori egiten baldin bada oso justifikatutako arrazoi batengatik, niri iruditzen zait aurrekoa hala izan zela baina kasu hontan ia iruditzen zait ezin genezakeela gehiago atzeratu eta horregatik gaiari...gaiari eztabaidatzeari ekingo diegu eta bidezkoa baldin bada onartzeari ere bai,

Baina Andonik, Pertsonal batzordeburu bezala zerbait esan nahi du,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, bueno... aurreko gaiari pixka bat lotuta, niri iruditzen zait, gaiak aukeran behintzat ez direla eguneko aztergaitik kendu ala jarri behar, zer nolako majoriak eman daitezkeen ba... horren baitan, ¡kontxo! Gaur oposiziotik bat falta da, venga, gaur dena azkar eta ondo bozkatu behar dugu, eta ¡ostras! Ba... gaur

denak etorri dira ba... eguneko aztergaitik kenduko ditugu gaiak, iruditzen zaitu, pixkat serioagoak izan behar garela eta kultura hori ez dago momentuz, ez da egongo, eta gaiak nahiko serioak eta gai hauen atzean pertsonak egon badaude, lehendabiziko puntuaren atzean, Ludotekako hezitzaileak daude, Ludotekako hezitzaileak gai hau tratatzea ere behar dute, horregatik iruditzen zaigu ba... plenoaren funtzionamendua ez duela egon behar ze majoria daukagu aurrera, ze majoria ez daukagu aurrera, dena den, Cristinak ere failatu du eta ez du deitu esanaz ezin duela etorri eta gaiak atzeratzeko eskatuz, beraz, Pilar-en bozkaren zentzua zein izan zitekeen eta Cristina-ren bozkaren zentzua zein izango litzatekeen asmatzeko, bueno... horreraino usten dut iristen garela guztiok, beraz, Pilar-en hutsa, Cristinarenarekin ere hortxen dago, bestela ere, bestela ere, ez zegoen zertan atzeratu beharrik,

Kontua da lehendabiziko puntua Ludotekako hezitzaileen lanaldia %50tik %60ra igotzea proposatzen dugula, hezitzaile hauek eta Ludoteka honek, beste funtzionamendu bat du joan den urtetik eta funtzionamendu horrek, zorionez ere, bere fruituak ematen ari da,

Kontua da, funtzionatzeko modu berriak planteatzen direnean, dimensionatu egin behar izaten direla, neurtu eta martxan jarri eta bere garaian %50ekin nahikoa izango zitekeela ondorioztatzen baldin bazen ere, gero Ludoteka martxan jarri denean ikusten da, ez dela iristen ordutegi horrekin eta... edo lanaldi horrekin eta lanaldia % 60ra igotzea planteatu digute ba... zerbitzuaren martxa eta funtzionamendua ikusirik, umeak inoiz baino gehiago, eta ekimenak eta irteerak eta ekitaldi asko eta asko; badakigu Ludoteka ondo funtzionatzen ari dela eta norabide hortan jarraitu dezan ba... lanaldia ere egokitu behar, egokitzapen txikia da, %10eko igoera bi lanpostu, ez zaigu iruditzen egokitzapen honek, ba... inongo txikiziorik eragingo dionik gure lehendabiziko kapitulari, beste batzuk beste zentzu batean dira, hau gorantz da, beste batzuk beherantz izango dira, eta batzuk bestearekin enjuagatzen direla iruditzen zaigu, zerbitzuak behar du, hala eskatu digute teknikariek eta lanaldia egokitzera gatoz zerbitzuaren bilakaera oso positiboa delako,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, barkatu, eta eztabaidari ekin aurretik, ahaztu egin zaidalako, bueno... lehen aitatu ditut arrazoiak zein diren, bakoitza puntuz-puntu ekartzekoa, aurreko plenoan egin genuen beste gai batekin, baina nola irizpena modu bakarrean egin zen eta orain puntuz-puntu gatozen egitea, aurrena bozkatu behar duguna da, horrela egitearen zentzua onartzen dugun edo ez, urgentziazko botazioa nahi dugun edo ez, horregatik aurrena egingo dugu botazio hori eta gero eztabaidari ekingo diegu, eh? M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, Emiliano PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor de la urgencia,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.: Bai, ARALAR-/ALTER-NATIVA?,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Bai,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Baita ere,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Talde Mistoak baie eta EAk ere bai,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3 TALDE MISTOA; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4 (EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3 TALDE MIXTO; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

LEHENENGOA: 3 .
PUNTUAN: PERTSONALA
AIPATZEN DIREN GAIK
PRESAZKO IZAERAZ
TRATATZEKO AHO BATEZ
ONARTZEA

PRIMERO: APROBAR POR
UNANIMIDAD LA
URGENCIA PARA TRATAR
LOS TEMAS DEL PUNTO
TERCERO: PERSONAL

Beraz, dagoeneko eta Andonik emandako esplikazioen arabera, ez dakit, zerbait esan nahi baldin baduzue

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Esan nahi deguna da... Hasteko, aipatu da aurreko plenoan gai zerrendan sartuta zegoen gaia izanik, onartu zenutela atzeratzea, eta berriz ere gure esker ona adierazi nahi dizuegu horregatik. Egia da, kontu berezia zela edozein modutara.

Hori esanda, eta azkenengo hori kontatu gabe, usten dut hirugarrenengo aldia dela ekartzen diguzuela gaia mahai gainera. Oraintxen, ez dakit, bere osotasunean edo gauza batzuk bai, besteak ez, edo bueno... kuestioa da lehenago osoa zena orain pusketaka aurkezten diguzuela.

Edozein modutara hirugarrenengo aldia pleno hau gai honen inguruan posizionatzera behartzen duzuela. Eta, desde luego, aurrekoetan gure argudioak azaldu izan ditugu eta gure bozkaren zentzua ere bai, eta oraingo hontan, berdin egingo dugu eta are gehiago esango dugu, ez dakit noiztik gaudela... aurreko plenoan Joseba Josurekin halako eztabaidatxo txiki bat izan genuen, berak baietz aurkeztu zigutela eta guk usten genuela ezetz eta nonbait azken egun hauetan izan diren bileretan egon direnek esan dutenaren arabera, kontuhartzaileek, beraiek, aitortzen dute ezetz, Udal honen kontuen finantzi-bidegarritasunaren txostena oraindik ere ez dagoela egina.

Oraindik ere, guk behintzat, ez daukagu eskuartean dokumentu kontsolidatu bat non azaltzen diren sarrerak eta gastu aurreikusiak eta inbertsio aurreikusiak, alboratu direnak kenduta eta kuadratzen dutela. Benetan iruditzen zaigu oposizioarekiko nahiko begirune motza adierazten duzuela, egia da, guk ere, ez dakit noiz, Josebak esaten zuen bezala lehengo batean, ez dakit noiz, ez genuela eman, egia da baita ere ez zenutela eskatu, baina, dokumentu hura bazegoela noski etxe hontan.

Eta horrela egonda, jakin gabe -nahiz eta susmoak eta zantzuak bat baino gehiago eduki-, etxe hontako egoera finantzieroa norantz dihoan, ba... iruditzen zaigu gaurkoan ere nahi eta nahiez aurrengo kapituluaren aldaketa suposatzen duten hauei ezezkoa esatea tokatzen zaigula. Batzutan kendu egiten duzue, besteetan igo..., edozein modutara kentzeko asmoa dagoen hori ez kendu arren ez du gasturik eragiten.

Igotzeko asmoa daukazuten hori igo ezkerro, nahiz eta zerbitzuarentzat onuragarria izan, (ez dakigu, hala izango da), bai, horrek badauka bere eragina.

Kontua ez da zerbitzuak hobetzea ona den, zerbitzu guztiak hobetu daitezke beti, beti, inoiz, inoiz inongo zerbitzuak ez daude posible den onenean. Muga bakarra egoten da, zoritxarrez, gauza horretan beste gehienetan

bezalaxe: ba ote dagoen hori iraunkor bilakatzerik edo dirutan soportatzerik. Nola zalantzak ditugun, eta nola ez daukagun eskuartean dokumentu bat argi eta garbi adierazten diguna, ba... gure ezezko botua, eskerrik asko.

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Bueno, vamos a ver, si es una cuestión ya debatida y además rechazada la anterior vez, por la misma causa que nosotros también nos vemos obligados a decir que no, sintiéndolo mucho, ya lo dijimos la vez anterior que nos fastidia tener que decir algo que va en beneficio, en principio ganar más, lógicamente a cambio de mayores horas de trabajo, no cabe la menor duda que va en beneficio del trabajador y en beneficio del servicio, pero es que nos encontramos en la misma situación que nos encontrábamos entonces, ésto es un aumento de gasto, capítulo 1, un aumento de gasto que mañana va a volver a repetirse y en los presupuestos venideros lógicamente va a estar ahí, y no sabemos realmente de donde va a salir el dinero, porque no sabemos si hay para ello, si no hay, si deja de haberlo, entonces, lo pedimos, lo hemos vuelto a indicar cada vez que hemos podido y seguimos esperándolo, entonces cuando tengamos esa radiografía real de la situación económica del Ayuntamiento y veamos que vamos que es posible y si no hay ningún tipo de problema y no solamente en este momento sino de cara al año que viene u otros años, porque la situación del capítulo I y II últimamente no hace más que ir para arriba, para arriba y no hay que dejar de tener presente que esos dos capítulos en el momento que vayan aumentando si los ingresos no van en la misma línea, al final lógicamente lo que provocan es una posibilidad de atender, ó hay que dejar de atender otras cosas para atender ésto, o sea, es algo que no hace falta, vamos, ser entendido en la materia que es así, entonces realmente si éso se entrega y vemos la posibilidad pues oye, si hace falta una cuarta vez ponerlo encima de la mesa pues le hará falta una cuarta vez, pero en principio, nosotros estamos en la misma situación que entonces y por lo tanto tenemos que decir que no.

Y por contestarle a Andoni yo no he hablado de mayorías o no minorías, porque ni me he preocupado, ni me había dado cuenta de que no había venido Cristina, la verdad, yo me he limitado a transmitir lo que Pilar me había pedido y éso es lo que he hecho, no he tenido en cuenta si hay tres, hay veintitrés ó cuarenta y siete, no es ése el tema

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Tampoco he dicho éso

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): No, pero bueno, si tú lo has dicho que podía ser buscando mayorías, no creo que dé lugar a éso, ni mucho menos, porque bastante lamentable es que tengamos que estar negando la oposición a una cuestión de los empleados del Ayuntamiento, por una mala gestión ó una mala planificación de la propia comisión que es la que lo propone,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Hirugarren aldiz ekartzen baldin badugu, izango da beharrezkoa dela iruditzen zaigulako ekartzea, eta batzordeetan ere esplikatzeko saiatu garelako eta beste erabatetara ekartzen dugulako.

Hirugarrengo aldi hontan ekartzen dugun hau, ez da aurrekoetan ekarri dugunaren berdin, berdin, berdina.

Dena den, ez dakit, erabakia bai bere pisua dauka eta erabakia ba... enjundia haundia dauka, nola ez, baina ez dut usten nik udaletxe baten aurrekontuen egoera desekilibratuko duenik, nahiz eta oso desekilibratua egon daitekeela pentsatu dezakezuten, zuek ba... ikusiko duzute ekonomiaren inguruan ze diskurtso egiten duzuten, baina bi hezitzailearen lanpostuen % 10ak lehendabiziko kapituluan izango duen pisuaren ba... tamaina ere neurrian hartu beharko da, erabakia hartzen denean ez?

Badirudi, Zumaiako Udalak, lehendabiziko kapituluan ez dakit, beste inork baina gehiago xahutzen duela eta bere egoera ekonomikoaren eragile nagusia edo arrazoi nagusia dela lehendabiziko kapituluan xahutzen diren diruak, kontua da batz bestekoei eta beste udaletxe batzuk lehendabiziko kapitulua bideratzen dutenak ikusi eta geurearekin konparatzen baldin badugu, oso urruti geunden eta urruti gaude oraindik ere eh?, beste udaletxe batzuk lehendabiziko kapitulura bideratzen dutena bideratzeko?

Gogoratu nahi dut, Zarauzko udaletxea zer bideratzen duen eta gu Zarauzko udaletxearen tamaina jarriz gero, lau miloi euro bideratu beharko genituzkeela lehendabiziko kapitulura, eta Zumaiako udalak bi miloi t´erdi bideratzen ditu eta ez lau; eta Zarauzko udaletxeko lehendabiziko kapituluaren gastua orain %10eko igoera honen kontra agertzen direnek onartu dute; Gipuzkoan batz-beste % 32, 30 batean dagoela usten dut, lehendabiziko kapituluan bideratzen diren kopuruak, Zumaiaren %23an gaude; Andoaian %44a, ez gaude gu Andoaian eh? Hemen %23a.

%10a bi hezitzailearena, oso garrantzitsua, beraiantzako eta zerbitzuarentzako eta zerbitzu publiko honen alde egiteko eta norbait zerbitzu publikoen defentsaile eta zerbitzu publikoak beharrezkoak direla esaten baldin badu, normalean hori ba... ezkerrean begira egoten direnak esaten dira ba... egoera orokorra horrelako erabaki nimañoa ba... justifikatzeko niri behintzat iruditzen zait ez dela, ez dela egokiena, baina

bueno... bakoitzak bere botua justifikatu beharko du, zerbitzuari ez dio onik egingo eta langileari ere ez dio onik egingo eta erabaki honek daukan enjundia, daukan pisua ba... benetan oso, oso, oso, oso, oso xumea, oso arina da, baina bueno... bozkak ere justifikatu behar dira eta badirudi %10eko hau dena desekilibratzen duela

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Joseba, zuk zer edo zer nahi zenuen esan,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Nik gauza bat bakarrik,

Hemen esaten denean hiru aldiz tratatu dela hau plenoan, ez dakit, ni behintzat ez naiz akordatzen, hiru aldiz izango da, pentsatzen dut,

Lehenengoa aurrekontuekin ekarri genuenean, behartuta gaude aurrekontuekin plantila organikoa ekartzea, hor, ez da ekarri dugula nahi dugulako, vamos, behartuta gaude, bestela aurrekontuak ezin dugu ekarri,

Bigarrenkoa.- Dakizuen bezala suspenditu egin zen eta

Hirugarrenkoa.- Gaur izango da, hirugarrena gaur,

o sea, tratatu, tratatu ez ohiko bezala? Esango nuke, ze... aurrekontuekin ohikoa da ekarri beharra daukagu, Gaur,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Oker ez baldin banago, aurrekontu orokor proposamena egin zenutenean atzera joan zen aurrekontuarekin batera,

Baina, berdin dio, ez da ekarri behar zenutela, ekarri egin zenutela, baizik, eta bigarrena, oker ez baldin banago, baina, usten dut ezetz eh?, ez dakit modifikazioen batekin, modifikazio potoloren batekin ere aurkeztu zenuten, baina edozein modutara, berdin dio

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Baina ez dut bukatu, egon, egon

Nire ustez ez ohiko bezala gaur lehenengoa da, ez dakit seguru, igual oker egongo naiz, ez dakit seguru,

Oker ez nagoena da bestea esan behar dudana, aurreko plenoan esan nuen eta gaur berriz baieztatu eta ratifikatu egingo dut, ekainean idatzi batean eskatu zenuela informe ekonomikoa, zeren gauzak nahastu egiten dituzue, gauza bat da informe ekonomikoa, oraingo egoera, dagoen egoera edo orduan zegoena, beste bat da plan-ekonomiko finantzieroa hiru edo lau urtera begira egin behar dena eta nik dakidala bi dokumentu horiek daude

egiten; ekainean eskatu zenuten informe ekonomikoa banatu zen ekainaren 17ko hazienda batzordean eta aurreko plenoan esan nuen bezala, PNV-ko inor ez zen etorri; PSOE etorri zen, jaso zuen eta Pili ez naiz akordatzen.

Hori txokatzen zait esan dizuela kontuhartzaitzako teknikariak, zeren, kontuhartzaitzako teknikariak, hain justu, eman zidan aurrengo plenoaren ondoren galdetu nion ekainaren 17 data, begiratu dut, eta horrela da, eta ez zinaten etorri esan dudana bezala.

Beste informe ekonomikoa bat egiten dago eta pentsatzen dut hurrengo batzordean ez bada, hurrengoan espero dut bi astetan ematea, hurrengo astean diktamen pilo bat daude eta ez dakit, posible izango den baina hurrengoan seguru.

Eta plan-ekonomikoa finantzieroa beste gauza bat dena, ez dakit, zein esaten duzuen, hori egiten dago baita ere eta hori batez ere da Diputazioak eskatuko digulako, agian, baina hori egiten dago eta esan nuen bezala orduan eta baita ere orain, berriz esaten dut, plan-ekonomikoa finantzieroa nik dakidala, sekula ez duzuela egin, sekula, beste garai batzuk izango ziren, baina ez duzue sekula egin eta informe ekonomikorik ere ez, guri emanda behintzat,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Begira, nik –mea kulpa-, haziendak erabiltzen duen hizkuntza ez dut kontrolatzen, “informe ekonomikoa” edozein gauzari deitu diezaiokegu, diru kontuetaz ari den edozein dokumenturi, oker ez baldin banago... Gero, informe ekonomikoa hori guk eskatzen duguna eta zuek ematen diguzuen bat edo parean datozen... badirudi ezetz. Guk?... Saiatzen naiz ni esplikatzeko, ez dakit ze arazo daukagun ulertzeko.

Arazo bat dago: diru sarrerak ez dira zaindu, krisiak jo du zaudetenetik jo duen bezala; inbertsio erabakiak... inbertsio erabakiak hartu dira eta lehentsi dituzue kopuru batzuekin; gastu hazkundera ere egin duzue aurreko urteetan, nahiz eta gure postura 2008ko aurrekontu berradostetik hasita, beti izan den ohartaraztearena. Egoera da... dena. Baina egoera horren inguruan eta zentzu berdinean edo sentido berdinean, gehitzen zaizkion bektore pilo bat erantsi dizkiozue.

Horren ondorioz, gure aburuz eta umiltasun osoz, pentsatzen dugu ba... arazoak daudela. Eta nahi duzuen bezala deitu: txostena, plana, informea bideragarritasuna, finantziarioa... nahi duzuna, baina arazoak daude, zeren galdetzen duguna da nola pentsatzen du Udalak aurre egitea ba.. Bankoari Zumaia Lantzenek itzuli behar dion horretan?, diru bat prestatu behar omen dio, eta ba al dauka Udalak horretarako dirurik? Ah! “Eske ez dakigu, zeren txostena prestatzen ari gara”... Adibide bat da, eta justu-justu ez dakit hitz egokienak erabiltzen ari naizen, momentu honetan, ni ez naiz egon adibidez, atzo arratsaldean Zumaia Lantzeneko bileran, ez bait naiz kide eta

ez dakit zehatz-mehatz ze hitz erabili diren, zuk nahi baldin badiguzu, guri tranpa egin edo zeure buruari tranpa egin -zeren oraintxe ez dakit ze tranpa klasekin gabiltzan- esanaz: “ez duzue justu-justu eskatzen”, edo “eskatzen duzun hori guk hau ulertzen dugu dela”..., begiratu, hain da erraza!, hain da erraza!, zuk hartzen dituzu honezkero, ia, altura hauetan, izango direla badakizun sarreraren partidak, hauek dira onartuta dauzkagunak edo indarrean dauzkagunak eta hauek dira aurreikusten ditugunak; gastuekin berdina egiten duzu eta inbertsioekin berdina; eta bati bestea kendu ezker, oreka dagoela? Primeran, txalo joko dugu; desoreka dagoela? (Lehengoan esaten zenuen bezala ez zenuela “zuloa” hitza erabili nahi), desoreka dagoela? Jakin dezagun ze desoreka dagoen; horixe bakarrik ari gara eskatzen, nahi dugula jakin ze desoreka dagoen; eta nahi dugula dokumentu bat eskuartean jakiteko gastuak, inbertsioak eta sarrerak nola aplikatzen ari diren eta nola aplikatu asmoa dituen Udal honek, ez: Gobernu honek. Eta... lehengoan esaten nuen: ez hainbeste, ezta, eskubidea daukagulako hori eskatzeko, ez hainbeste ikusmin ez dakit nolakoa daukagulako, ez. Jakin nahi dugulako, baina batez ere, eta batez ere, zeurontzat delako ezinbesteko tresna. Eta Ludotekako langileen %10ren gorabeherak badakigu gauza ez duela gehiegi okertuko, zuzendu ere ez du zuzenduko, eta okertu... bere neurri hortan, baina eske printzipio kontu bat da, printzipio kontu bat da. Sartzen zaigu horrela.., aurrekontuarekin ez, aurrekonturik gabe, ez, beno... ba... aber zatika..., umeei merienda ematen zaien bezala kutxaradaka, kutxaradaka ea horrela irensten duen, konturatu gabe..., o sea, alde batetik eta

Bigarren jolin, mesedez! Erabaki ekonomikoak hartu behar baldin baditugu eta kapitulu I -eta badakit oso maitea duzuela, eta- beti esan dugu oso arriskutsua dela, kontsolidatuta geratzen dela, ezinezkoa izaten dela inoiz jeistea eta Zarauzkoa bost axola zait, nahiko problema daukagulako bertan, ba... o sea, hainbeste aldiz esan ditugu ia ez duela merezi jarraitzea, barkatu, gehiegi luzatu naiz

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Efectivamente, hau da eztabaida antzua,

Aizu, hainbeste aldiz eztabaidatu dugu, bozkatzera pasako gara, eh?

Ba... bozkatzera pasako gara, PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Ez

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Me parece bien, lo que has dicho pero creo que cortar así, sin más, tampoco debería ser, Puede ser un debate....

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, baina begiratu dira arratsaldeko zortzirak eta piko, dauzkagu ez dakit zenbat puntu gai ordenean, ez baldin badugu mozten?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Sí, ya lo sé, si el que tiene que viajar...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ez baldin badugu mozten?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Que el que tiene que viajar soy yo, ya lo sé, puede ser un debate estéril, pero se basa en una cosa que vuelvo a reiterar como lo hicimos, se ha incumplido, lo que se dió en ese momento si hubiera sido la base para llegar a esta situación actual hubiera estado sobrepasado ya hace lustros, por que?

Porque en principio partía de un error de los dos millones y medio de Zumaia Lantzen, que dijimos por activa y pasiva que no se iba a poder devolver, pero ya te digo y ha sido así, por éso no voy a entrar en más debate, pero si no se quiere reconocer éso, pues tendremos que seguir pidiendo hasta que se acabe el mandato, que le vamos a hacer...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Baina horri, gertatzen dena da, zuri erantzuteko gogoia daukadala ikaragarria, bina klaro, erantzuten hasiko naiz! Ez dakit zer! Nire ustez ez da egia hori! Nire ustez beste bat da! Ez dugu behinere bukatuko, orduan bozkatuko dugu eta kitto, PNV

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Berriz ere Ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ez, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): En contra,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.: Ez ARALAR?,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde eta EAK ere bai,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 5 botu (3
TALDE MISTOA; 1 ARALAR
/ALTERNATIBA; 1 EA)

Aurkako botuak: 6 (4 EAJ-
PNV; 2 PSE-PSOE)

Abstentzioak: 0

LEHENENGOA:
LANGILEEN LANPOSTUEN
ZERRENDAREN ALDAKETA
Ludotekako Hezitzaileen lanaldia
%50etik %60ra pasatzea EZ
ONARTZEA,

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 5 votos (3
TALDE MIXTO; 1 ARALAR
/ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 6 (4 (EAJ-
PNV; 2 PSE-PSOE)

Abstenciones: 0

PRIMERO: DESESTIMAR
LA MODIFICACIÓN DE LA
RELACION DE PUESTOS DE
TRABAJO: Incrementar la
jornada del puesto de Educador
de Ludoteca del 50% al 60%.

Bigarrena.-

**TURISMO ETA MERKATARITZA TEKNIKARI- LAGUNTZAILE
ETA TURISMOKO ADMINISTRARI-LAGUNTZAILE PLAZAK
EGOKITZEA.**

Honen inguruan, zerbait esateko daukazue?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Kasu hontan, egokitzapen honek egiten duena da ajustatu berrantolaketa eta balorazioan ematen den.....egon pixkat, egon pixkat, eon, ez, ez, (bai usten dut hori dela) egokitzapena da baina beherantz, mailak lehen batzuk aurreikusten ziren baina berrantolaketa eta balorazio hortan ba.. hor dauden maila horiek edo gaindituta daude RPT-an eta orduan murriztu egingo da neurri batean.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Zerbait esateko?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Galderak sortzen zaizkit, baina egia da berandu dela.

RPT-an bakarrik puntu honetan izango du eragina egindako berrantolaketak?

Berrantolaketa hori onartu du azkenean Pleno honek?

Hori ere ez al zen atzera bota?

Hirugarren, behera jaitea nibelak, inpliketzen du soldata gutxiago ordaintzea? Edo mantentzea daukana?

Nahi baduzu erantzun, nahi baduzu ez; Zalantza pilo bat eta lehenera noa: pusketaka osoa onartu nahi izan ez dena. Ezezkoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Emiliano
Edo botatu nahi baldin baduzu, zuzenean, ba... oso ondo,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Ya hemos dicho que no íbamos a seguir discutiendo, pero bueno... veo que por lo menos anteriormente aunque nada más sea anecdótico has dicho queda aprobada la moción, en este caso no has dicho no se aprueba el punto, creo que también es interesante y éso que va a implicar nuestro voto negativo, aunque nada más sea por igualdad ya que vamos a tratar luego el tema de Igualdad,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Cómo estamos!, cómo estamos!
Aralar,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Alde egingo dugu,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Kontua da, berrantolaketa eta balorazioa onartuta dago, onartuta dago ez pleno honengatik, pleno honek atzera bota zuen eta berrantolaketa eta balorazio hori onartu dute langileek eta plantila honek onarpena eman zion; gero politikoki ez du jarraibiderik izan, nahiz eta pleno hontan esan langileekin adosten dena babestuko zela, ondoren hori ez zen horrela izan eta horregatik ez dago onartuta berrantolaketa eta balorazio hori, baina berrantolaketa eta balorazio hori langileekin adostuta daukaguna norabide bat, bai markatzen digula guri eta konprometitzen gaituela guri, Udal Gobernuari, guk onartu eta adostu dugulako, guk adostu eta ondoren onartu dugulako langileekin, hori egitea behintzat lortu dugu, gero hemen ez du aurrera biderik eduki, orduan egokitzapen hau ba... egitea inongo kalterik egingo ez duenean, gure irudiz behintzat ez dio kalterik egingo, zeren, lanpostu hauetan aurreikusten diren kopuruak ez dira erabiliko, lehen esan duzun bezala eta hor aurrekontuetan erabiliko ez ditugun kopuruak eta aurreikusi behar izatea, ba.. bueno remanente bat egongo da hor eta lehendabiziko kapitulua inongo beharrik gabe haundiko dugu. Honekin egokitu egiten da eta murriztu egiten da neurri batean lehendabiziko kapitulua, bueno,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Ba... bozkatzera pasako gara besterik gabe?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Eta bozkatu aurretik?.....

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Pero es bastante grave la cosa, me estás diciendo que no vas a aprobar lo que ha decidido el pleno,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ez, ez, ez, gaizki ulertu didazu,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Porque éso es lo suficientemente grave cómo para saberlo, porque lógicamente la actuación que tengamos que llevarla, tendremos que llevarla, porque no cabe la

menor duda de que estás obligado a aprobar lo que el Pleno ha decidido, lo que no puedes decir es que no va a tener incidencia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Yo, tengo una pregunta por favor, Si el Pleno adoptó una decisión de no aprobar el estudio de cómo se llame, De puestos de trabajo, Nola aurkezten zaizkigu erabaki horren kontra dihoazten nolabaiteko proposamen zatikatuak eta ohartarazten bagara, ohartzen bagara ohartzen gara, eta bestela...., ¿por si cuela, cuela? Edo hau nola dihoa? Ze.... ez dut ulertzen...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alkateak, eskumenak daukadalako, oker ez baldin banago nahi adina plenoa ekartzea, berari egokitzen zaizkion gaiak, oker ez baldin banago, ezta?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Lehenago esan dut, begirune motzean ibiltzen zaretela, baina benetan motzean, hau transparentzia baldin bada... zeurona izango da transparentzia!, o sea, usten dut, ia-ia, adar jotze bat dela,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Nik, ia-ia ez; guztiz usten dut adar jotze bat dela, ez dakit, hau da guztiarekin polemizatu beharra! Hau da guztiarekin polemizatu beharra! Nor saiatu da, ez dakit, zer gol sartzen, diktaminatuta dago gaia, batzordean esplikatuta dago gaia eta argi esan dugu nahiz eta onartuta ez dagoen, guk zati hau moldaketa puntual bezala ekartzen baldin badugu, ba... horrela ekartzen dugu, puntual bezala eta esan dut ez dagoela onartuta, baina guretzako ba... jarraibide bat ere bada, onartuta daukagun hori, eta horrela presentatu dugu eta ez dugu ezkutatu ezer; eta ez dugu esan bueno... eta ez dakit zer.... eta orain zuek konturatu zarete... Ah! Baina hau ez da izango?

Ez, guk esan dugu, hemen inor ez da etorri behar izan ohartaraztea guk zerbait ezkutuan egiten saiatzen ari garela, ez! Gu ari gara esplikatzen eta horrela enteratu zarete eta diktaminatuta dago

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Galdetu dugulako,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ez, ez, ez, galdetu gabe esan dit nik ere, lehendabiziko interbentzioa, baina, ez dakit... legealdia luze dihoa, ordua ere luze dihoa, eta horrelako gaiekin polemizatzen hasteko gogoia baldin badaukazute oraindik, bejondeizuela,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bozkatzera pasako gara?, Venga Joseba

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Segundu bat, segundu bat,

Nik ez dudala ulertzen da, ni ez naiz Pertsonalekoa baina... zuk galdetu duzu ea berrantolaketa hori bere garaian ICSA-kin eta hori egin duguna, bueno... egin den azterketa ea onartu den, ez dudana ulertzen hori zelan litekeen galdetu ere? Plenoan atzera bota zen eta hori onartu behar du Plenoak, orduan galdetzea ere, guk ezin dugu hori onartu, Plenoak onartu behar du, bere garaian ekarri zen, atzera bota zen, orduan ez dakit ze... zentzu daukan galdera horrek,

Eta bigarrena, badirudi bigarren puntu hau, Andonik esaten du murrizketa bat dela Pertsonalean, gutxi izango da, baina murrizketa bat da, hori ere ez duzue onartzen, orduan ba... ez dakit, badirudi eh? murrizketak ere ez duzuela onartzen ez? Zeren ez badut ondo ulertu ezetz bozkatu behar duzue edo ondo ulertu behar dut; eta gero esan dizudan bezala absurdoa da galdera hori egitea plenoak onartu behar du, atzera bota zuen, berriz ez badugu ekartzen eta ez bada onartzen, ba... ezin da onartu,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Hain zuzen galdetu dudana da: baina plenoak onartu egin al zuen ba.. hori? Ez, ez zuelako onartu,

Begiratu, ez noa gehiago luzatzea, bakoitzak ulertzen du ulertu nahi duen bezala, eta ezezko botua. Eta nahi baduzue botatzen ditugu, Bi, Hiru eta Lauak eta berdina izango da hirugarrengo puntu guztietan gure bozka,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): PSOE,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Esplikatu ere ez egin, total zertarako.....

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: PSOE, (Mikrofonoa ireki mesedez)

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): No, no, no Ah!
Perdón que no tengo nada más que decir, me refiero

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: PSOEk ezetz,
El voto.....

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): El voto a qué?
Porque ya me estais liando....

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: No me extraña, Emiliano

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): No, no me
extraña no?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: No, no, no me extraña

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Pues a mí sí, a
ver, después de tantas vueltas

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno, tú... tú mismo dices todo

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): El voto de qué,
pregunto..

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Pues el 3.2
Es que cómo al final liais todo y vais hasta Zumaia Lantzen con los 2,5
millones de euros, no me extraña

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Pues si creéis que se debe de votar punto a punto?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, bai, bai

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Pues vale; ya el mismo que al principio, si es la misma causa que no!

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Que no, ARALAR?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa eta EAK ere aldekoa,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 5 botu (3 TALDE MISTOA; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Aurkako botuak: 6 (4 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE)
Abstentzioak: 0

LEHENENGOA:
LANGILEEN LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA Turismo eta Merkataritza teknikari- laguntzaile eta Turismoko administrari- laguntzaile plazak egokitzea EZ ONARTZEA,

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 5 votos (3 TALDE MIXTO; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 6 (4 (EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE)
Abstenciones: 0

PRIMERO: DESESTIMAR LA MODIFICACIÓN DE LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO: Adecuar las plazas de técnico auxiliar de Turismo y Comercio y auxiliar administrativo de Turismo.

Hirugarren puntua:

**GIZARTE ZERBITZUETAKO ADMINISTRARI-LAGUNTZAILE
PLAZA BAT %100EKO LANALDIA SORTZEA.**

Eta hemen adierazi, gauza bat bakarri, Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuko batzordean gaudenak hori ondotxo dakigu, zenbaterainoko igoera izan duen azkenaldian, batez ere prestazio berriak eta lege berriak direla eta, zorionez eta Udal Gobernu honi eskerrak, eta nik usten dut, usten dut, ez, harro gauden gai bat da Gizarte Zerbitzuetan ehundoko esfuertzoa egin genuen Pertsonal arloan, Gizarte Langileak bikoiztuz gaur egun zeudeneta.

Eta zorionez azken urteetan eman den demandari erantzuteko gai gara zorionez, baina Administrari Laguntzaileei dagokionez eta tramitazio asko egin behar delako Gizarte Zerbitzuetan ba... administrari laguntzaile baten lanaldia plaza bat ehuneko ehunera pasatzeko aukera ez, onartzeko bidezko baldin bada ekartzen dugu pleno hontara, hain zuzen ere, lan karga guzti horri aurre egiteko, eta hori esan gabe ez nuen geratu nahi, PNV,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Aurkeztuko nuke gaia.

Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailearen postu hau aurkeztu genuen aurreko RPT-an, 2010eko aurrekontu proposamenean lanaldi erdian agertzen zen; lanpostu hau atzera bota zen, beraz, gaur egun ez dago lanaldi erdian postu hau, administrari laguntzaile bakarra dago eta hari bi, hiru Gizarte langile daude gaur egun ba... plaza oposizio-lehiaketaz aterata.

Iñakik esan duen bezala, eskatzaile kopurua bikoiztu egin da bider bi bikoiztu da, eta tramititzen ari diren espedienteak ere horrela doaz, eta zoritxarrez, ez du ematen tendentzi hau aldatuko denik epe laburrera, guztiok nahiko genuke eta zoritxarrez, Gizarte Zerbitzuetan inbertitzen jarraitzeko arrazoiak gero eta gehiago edukiko ditugu, zoritxarrez, ez dakigu zer gertatuko den, alde batetik behintzat esan digute puntu guztietara ba... zer bozkatuko duten, baina bueno... guri iruditu zaigu beharrezkoa dela puntu guztiak jorratzea, nahiz eta jakin lehendabiziko kapitulua igotzen eta igotzen bueno... bai... hor ere diskurtso hori egin daiteke, baina iruditzen zaigu Gizarte Zerbitzuetan igo behar dela adosten, denbora gutxi beharko genukeela sozialismoa defendatzen duten alderdiekin, beraz, esperantza orain badaukagu, akaso puntu hau aurrera aterako dela, Zumaiako Gizarte Zerbitzuek dauden eskaera eta behar guztiei behar bezala erantzuten jarraitu ahal izateko,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Zerbait esateko,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Begiratu, lehenago esan behar nuena, gaude ia azaroan, azaroan, zergatik ez duzue, mesedez, datorren urterako aurrekontua planteatzen eta bertan gauza guzti hauek ere txertatu behar direnez, eztabaidatzen ditugu, Lehen esplikaturako eta emandako arrazoi guztiengatik eta lehenago aipaturako dena delako txosten hori eskuartean ez daukagun bitartean, guk ezezko botua emango diogu: aurkeztu eta hitzegiten dugu serio,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: PSOE,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Yo no creo que el problema de Servicios Sociales, no digo que no sea grave ó que no se haya aumentado por desgracia, por el tipo de situación, pero siempre se puede recurrir a otro servicio del Ayuntamiento donde temporalmente se pueda destinar una persona a la ayuda que sea necesaria, por lo tanto, el decir ahora que no, y en base a todo lo que hemos dicho no paraliza nada, sino simplemente es una gestión dentro del Ayuntamiento para que éso, si en otros lados es posible, que yo creo que sí, que siempre lo es, se pueda provisionalmente tener una persona ahí y no incrementa para nada absolutamente el gasto, por lo tanto, sigue siendo nuestro voto el no,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno..., bozkatzera pasako gara zuzenean, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Ezezt

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ezezko botua, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Que no,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.: Ezezko botua ARALAR?,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA.): Aldekoa TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA.): Aldekoa eta EAk ere Aldekoa,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 5 botu (3
TALDE MISTOA; 1 ARALAR
/ALTERNATIBA; 1 EA)

Aurkako botuak: 6 (4
EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE)
Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 5 votos (3
TALDE MIXTO; 1 ARALAR
/ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 6 (4 (EAJ-
PNV; 2 PSE-PSOE)
Abstenciones: 0

LEHENENGOA:
LANGILEEN LANPOSTUEN
ZERRENDAREN ALDAKETA
Gizarte Zerbitzuetako
administrari-laguntzaile plaza bat
%100eko lanaldian sortzea EZ
ONARTZEA,

PRIMERO: DESESTIMAR
LA MODIFICACIÓN DE LA
RELACION DE PUESTOS DE
TRABAJO: Crear una plaza de
auxiliar-administrativo de
Servicios Sociales al 100% de
jornada.

Eta bukatzeko,

**BRIGADAKO “LANTALDE ARDURADUNA”REN LANPOSTUA
AMORTIZATZEA.**

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Hau ere, RPT-an dagoen Lanpostu bat da, eta exzendentzi bat hartu zen orain urte mordoxka bat eta RPT-an urteetan eduki dugun lanpostu bat da berriro erabili beharrik ere egongo ez dena, beraz, amortizazio bat da, RPT-aren aldaketa puntual bat, aurreko guztiak bezalaxe eta hona ekartzen dugu ba... amortizatu dadin

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Zer edo zer esateko,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Honetan ere ez garela sartuko RPT-aren aldaketa puntualetan

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Listo, orduan bozkatzera pasako gara,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Emiliano, zer edo zer esan behar du?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ez, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): En contra,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.: Ez, ARALAR?,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Abstentzioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Abstentzioa eta EAK ere Alde,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 2 botu (1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Aurkako botuak: 6 (4 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE)

Abstentzioak: 3 botu (TALDE MISTOA)

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 2 votos (1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 6 (4 (EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE)

Abstenciones: 3 (TALDE MIXTO)

LEHENENGOA: LANGILEEN LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA Brigadako “Lantalde Arduraduna”ren lanpostua amortizatzea.
EZ ONARTZEA,

PRIMERO: DESESTIMAR LA MODIFICACIÓN DE LA RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO: Amortizar el puesto de “Encargado de Grupo” de la Brigada.

HIRIGINTZA:

ETXEBIZITZETARAKO HIRI-LURZORUAN FINKATUTAKO EREMU JAKIN BATZUETAN DAUDEN ARETOEN ERABILERA HIRUGARREN SEKTOREKOA IZATETIK EXEBIZITZETARAKOA IZATERA ALDATZEKO JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZARI AURKEZTURIKO IRADOKIZUNAK EBATZI ETA BEHIN BETIKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.

Hau Hirigintza batzordean ikusia,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bi hilabetez publikatuta egon da ordenantza hau, iruditzen zitzaigulako denbora eman behar zitzaiola herritarrari, araudi berria hau ezagutu eta araudi berriari egin beharreko ekarpenak, iradokizunak, helegiteak aurkeztu zitzaizkion, eta bueno zazpi alegazio aurkeztu dira eta zazpi alegazio horien berri, azkenengo bi hirigintza batzordetan eman genizuen eta batzuk aintzat nola hartu diren eta beste batzuk nola ez diren aintzat hartu ba... bertan ere ikusteko aukera eduki dugu, beraz, aurreko hirigintza batzordean diktaminatutako moduan gaur hona ekartzen dugu onartzera eta besterik gabe bozkatzera pasatzea, proposatzen dut,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bateren batek zer edo zer esateko, Ezerrez, ba... bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.: Aldekoa, ARALAR?,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).:Aldekoa, TALDE MISTOA?,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: eta gu ere alde,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4
EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3
TALDE MISTOA; 1
ARALAR /ALTERNATIBA; 1
EA)

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4
EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3
GRUPO MIXTO; 1 ARALAR
/ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

LEHENENGOA:
ETXEBIZITZETARAKO HIRI-
LURZORUAN FINKATUTAKO
EREMU JAKIN BATZUETAN
DAUDEN ARETOEN
ERABILERA HIRUGARREN
SEKTOREKOA IZATETIK
EXEBIZITZETA-RAKOA
IZATERA ALDATZEKO
JARDUERAK ARAUTZEN
DITUEN ORDENANTZARI
AURKEZTURIKO
IRADOKIZUNAK EBATZI ETA
BEHIN BETIKO IZAERAZ AHO
BATEZ ONARTZEA.

PRIMERO: APROBAR
POR UNANIMIDAD LAS
ALEGACIONES
PRESENTADAS Y APROBAR
DEFINITIVAMENTE, SI
PROCEDE, LA ORDENANZA
REGULADORA DE LAS
ACTUACIONES TENDENTES
A LA MODIFICACION DE
USO, DE TERCIARIO A
RESIDENCIAL, EN LOCALES
UBICADOS EN
DETERMINADOS AMBITOS
CONSOLIDADOS DE SU
SUELO URBANO
RESIDENCIAL.

BIGARRENGOA: Erabaki
hau legeak agindutako eran
Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean
argitaratzea jendeak horren berri
izan dezan.

SEGUNDO: Publicar en
legal forma el presente acuerdo
en el Boletín Oficial de
Gipuzkoa para general
conocimiento

BIGARRENA:

IRIZPENA:

**UR-HORNIDURA ETA SANEAMENDU SAREAK
EGIKARITZEKO ARAUDI TEKNIKOA BEHIN BEHINEKO
IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.**

Hau oso gai teknikoa, eta dagoeneko batzordean ikusia
Bateren batek zerbait esateko? Inork ez ba... bozkatzera pasako gara,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldeko
botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.: Aldekoa, ARALAR?,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA):Aldekoa, TALDE MISTOA?,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): eta guk ere alde,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3 TALDE MISTOA; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

LEHENGOA: URHORNIDURA ETA SANEAMENDU SAREAK EGIKARITZEKO ARAUDI TEKNIKOA BEHIN BEHINEKO IZAERAZ AHO BATEZ ONARTZEA.

BIGARRENGOA: Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3 GRUPO MIXTO; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

PRIMERO: APROBAR INICIALMENTE Y POR UNANIMIDAD EL REGLAMENTO TECNICO PARA LA EJECUCION DE LAS REDES DE ABASTECIMIENTO Y SANEAMIENTO.

SEGUNDO: Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general

izan dezan.

conocimiento

Eta hirigintzako azkenengo puntua;

“PUNTANUETA II” 1 ALORRAREN XEHEKATURIKO ORDENAZIOAREN ALDAKETARI, 1A, 1B, 2A, 2B, 3B ETA 4A PARTZELEI DAGOKIONARI, BEHIN BETIKO IZAERAZ ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.

Hau ere Hirigintza batzordean ikusia, Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, hirigintza batzordean pasatua da gai hau, diktaminatu ere azkenengo hirigintza batzordean diktaminatu dugu eta bueno... bertan berrantolatu edo berrordenatzen dira etxebizitza... etxebizitzen ba... kokalekua edo Eusko Jaurlaritzarekin hartu dugun edo sinatu dugun hitzarmenaren ondotik, hor 1B, 2B eta 3B partzelak Eusko Jaurlaritzari pasatzea adostu genuen, partzela horietan baita ere kokaturik zeuden etxebizitzak, Torreagako hitzarmenekoak, nahiz eta gero ondoren Zumaia Lantzenen 2A partzelan egingo zirela esaten zen behin eta berriro ba... hor teknikariek, ez dakit, ez ziren konturatu ala ez, baina bueno... soluzionatu ezin daitekeen ezer ez da eta hemen bakarrik egiten dena da etxebizitzaren ordenazioa egokitu ba... denboraren poderioz batzuekin eta bai besteekin sinatu ditugun hitzarmenekin kontraesanean ez erortzeko, aldaketa berezirik ez dago baizik eta deskripzioaren moldaketa bat,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bateren batek zer edo zer esateko?
M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Diktamina irakurtzeko saiakera egin dut, baina, ez dakit, zuek baina niri laugarrengo puntura bakarrik iristen zait, ez dakit, merezi duen ere... azken finean,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Ni ez naiz konturatu, zeren nik dauzkaten paperetan ondo dauzkat eta bestela konturatu banintz esango nuen, baina...

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Posta elektronikoa zabaltzeko aukerarik ez dut izan gaur, eta paperean horixe gertatu zait, baina berdin dio, edozein modutara Eusko Jaurlaritzaren truketan jaso behar dugun diru hori jasotzeko, ulertzen dudanez, nahi eta nahiezkoa da -eta hala bedi, zeren denen beharretan izango gara- eta bakar-bakarrak esan Eusko Jaurlaritzak edo norbaitek egin ditzala edo has ditzala lehen bait lehen etxebizitza publikoak, gehiegizko atzerapena daraman kontua delako, gure aldeko botua izango da

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Besteren batek, zer edo zer esateko,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): No, simplemente la anécdota ésa que no se había recibido completo pero como estamos de acuerdo en él,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ba... oso ondo, ba... bozkatzera pasako gara, besterik gabe,
Bai, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.: Aldekoa, ARALAR?,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).:Aldekoa, TALDE MISTOA?,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa eta EAk ere alde,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3 TALDE MISTOA; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3 GRUPO MIXTO; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

LEHENENGOA:

“PUNTANUETA II” 1 ALORRAREN XEHEKATURIKO ORDENAZIOAREN ALDAKETARI, 1A, 1B, 2A, 2B, 3B ETA 4A PARTZELEI DAGOKIONARI, BEHIN BETIKO IZAERAZ AHO BATEZ ONARTZEA.

BIGARRENGOA: Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

PRIMERO: APROBAR DEFINITIVAMENTE Y POR UNANIMIDAD LA MODIFICACION DE LA ORDENACION PORMENORIZADA DE LAS PARCELAS 1A, 1B, 2A, 2B, 3B y 4A DEL SECTOR 1 “PUNTANUETA II” DE ZUMAIA.

SEGUNDO: Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento

Honenbestez, Gizarte Zerbitzuko gaietara pasako gara, Aurrengo puntua:

ZUMAIAKO GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO I. BERDINTASUN PLANA ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.

Gai hau, denok dakigun bezala aurreko plenoan eztabaidatzeko intentzioarekin ekarri zen eta ez naiz errepikatuko zergatik eta zergatik ez; bestela eztabaidan sartuko garelako, baina denok dakigun arrazoiengatik,

berriz ere ba... Pleno hontara ekartzen dugu eztabaidatzeko eta bidezko baldin bada eta hala espero dut aprobatzeko intentzioarekin, Badakit, gai-ordenarekin batera bidali zaizuela bueno... eta baita ere Gizarte Zerbitzuetan ikusteko aukera izan dugu, baina... bueno, hortaz aparte gai-ordenarekin batera baita ere, bidali zaizue Plan osoa, oraingo hontan, ez bakarrik laburpena eta bueno... ez dakit, bateren batek zerbait esateko daukan honen aurrean,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Ez, motz-motzean, orain bai eduki dugula aukera Plan hau irakurtzeko eta aztertzeko, oso Plan teknikoa da eta ematen duenez txukuna, bakarrik komentatu espero dugula ba... plan askorekin gertatzen den bezala kajoian ez uztea eta benetan ba... eraginkorra eta praktikoa izatea, badago beharra eta,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bai, bai, Plan hau espero dugu, aurrera.... bueno, bakarrik erantzun txiki bat eh? Plan hau espero dugu aurrera jarraitzea, horretarako hain zuzen ere dago Teknikaria, Teknikari bat Plan hau garatzeko ekarri den teknikaria Karmele eta behin Plana onartzen denean, egingo dugu batzordea bera ere aurkezteko eta aurreko Plenoan esan nuen bezala, oraintxe hasi berri den Teknikaria, hain zuzen ere, plan hau garatzeko, Paloma,

SRA. PALOMA HEREDERO NEGREDO (PSE-PSOE): Sí, buenas tardes, yo quería decir que parece que en estos momentos, justo cuando estamos viendo las últimas repugnantes manifestaciones de ilustrados machistas redomados y me estoy refiriendo al Alcalde de Valladolid, a Sánchez Dragó, a Pérez Reverte, pues creo que se incrementa la importancia de la puesta a punto y la puesta en marcha de los Planes de Igualdad.

Entonces, ésto por un lado yo creo que... quiero que quede constancia, En segundo lugar, quiero felicitar a la técnico de Igualdada, porque creo que ha elaborado un buen Plan de Igualdad, lo he estado mirando minuciosamente y del mismo modo que dice Lide espero y deseo desde aquí una buena andadura a este Plan, porque me parece muy interesante, Después, también quisiera hacer algunas aportaciones al mismo, he visto revisando el Plan que en la página -26- en cuanto al EJE: VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES, pone “Diseñar e implantar un protocolo de atención para las mujeres víctimas de violencia” después AREAS IMPLICADAS: Alcaldía, Servicio de Igualdad, Servicios Sociales, yo aquí

también añadiría Policía Local, es decir, a mí me parece muy interesante que los agentes de Policía hagan cursos, se impartan cursos de formación, puesto que cuando llega el momento de que las mujeres tienen que acudir para poner denuncias ó plantear momentos de maltratos tanto físicos, psicológicos de todo tipo, es muy interesante dada la causística de estas mujeres en estos momentos, como se encuentran que el agente de policía Local que le vaya a recibir sea consciente de lo que tiene, de la situación en la que se encuentra y que pueda actuar en consecuencia.

Pues, me consta que otros municipios, también la Policía, los agentes de Policía Local, forman parte de estos cursos que se imparten para abordar las situaciones de conflicto, entonces ésto es una de las aportaciones que yo quería hacer al Plan, me parece, insisto, muy interesante y creo que está muy bien elaborado.

Luego en el AREA DE CULTURA, también decir que me pongo a disposición como ya lo he hecho de un modo verbal ante la Técnica y así mismo de la concejalía del Ayuntamiento, como no puede ser de otra manera, a la hora de hacer conferencias o no sé... conciertos o cualquier otro tipo de intervenciones que consideremos que sean necesarias, pues tales como el día de la violencia de género ó el día ocho de mayo, y demás, teniendo en cuenta que soy miembro de la Plataforma de Mujeres Artistas contra la Violencia de Género, bueno pues me pongo a disposición para poder llevar a cabo cualquier acto junto con el Ayuntamiento, del mismo modo también que con todos los.... la organización política a la que pertenezco, es decir, el Partido Socialista, es algo que como todos sabemos lleva muy a gala el tema de igualdad y desde allí también podemos aportar muchísimos conceptos, situaciones y podríamos abordar situaciones puntuales que se vayan a dar,

Luego, también me gustaría recordar que en el mandato anterior, no dispongo de las fechas, he intentado buscar pero no he conseguido mirar porque no teníamos los correos, no teníamos la tecnología de la que manejamos ahora mismo, pero creo recordar que aprobamos por unanimidad una moción que decía que íbamos a cambiar todos los impresos que desde la Administración pudiera llegar a los ciudadanos, con la intención de modificar el Lenguaje No Sexista, es decir que... si aquello se aprobó, perdón, sí quiero decir, modificar el Lenguaje Sexista, vale? Es decir, implantar un Lenguaje No Sexista y aquello quiero recordar que también se aprobó por unanimidad, me parece que no se ha hecho nada al respecto, bueno... pues recordarlo que aquello se aprobó por unanimidad y que lo tenemos pendiente.

Y poco más felicitar a la Técnica ya lo he dicho y sí me gustaría desde aquí hacer un no sé... un ruego ó una sugerencia, mejor que un ruego, me gustaría poder enviar desde el Ayuntamiento de Zumaia un bozal al Alcalde de Valladolid, al escritor Sánchez Dragó, y a Pérez Reverte en

señal de repulsa por todas las declaraciones que ha mantenido contra la mujer en éstos días, no sé si se aprobará o nó, pero yo quiero que quede ahí mi sugerencia, vale? Y de momento nada más, gracias.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno, bakarrik gauza batzuk argitzeagatik, bueno... Plan hau ez du Berdintasun Teknikariak egin eh?

Bakarrik esan, Plan hau ez duela egikaritu Berdintasun Teknikariak izan ere lanean sartu delako orain dela hilabete bat eh? Plan hau garatzeko, Plan hau egin du enpresa batek –Fondo Formación Euskadi- izeneko enpresa batek eta baita ere badakit ba... bailaran, eskualdean behintzat, beste herri batzutan ere enpresa berdina egon dela, bueno... prozesu partehartzaileko prozesu baten bitartez e.a. hori argitzeagatik, eh? alde batetik eta bestetik, berez

Ez dago Plan honi iragarrita, bere denbora dauzka Plan honi bere ekarpenak egiteko eta ez zegoen iragarrita inolako aldaketarik, orain, egia esango dizut, nik nola oso aldaketa txikia den, nik nire partetik ez daukat inongo eragozpenik gehitzeko zuk esan duzuna batez ere hogeita seigarren orrian oker ez baldin banago, -Policía Municipal- oso aldaketa txikia delako eta denok bidezkoa ikusten baldin badugu, horrela onartzea ba... ez zaidala iruditzen arazorik egon litekeenik.

Eta azkenengo proposamenena ba... batzordean nahi baldin baduzu eztabaidatuko dugu, eh? nola egin? Edo ez egin? Edo dena delakoa,

Ez zait iruditzen gaur hemen beste... hori eztabaidatzeko gaia denik, ze... puntu bezala ez daukagu baina batzordean aitatuiko dugu eh?

Bueno, besteren batek zer edo zer esateko? Bai,

Aitorrek zer edo zer esateko? Ez,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bueno, gaur bi berri pozgarri ditugu, momentu hontan, alde batetik ba... Berdintasun Plana onartzera goaz, eta berdintasun plan hau garatzeko ba... behar diren ba... errekurtsioak edo... baditugu eta beste alde batetik Alderdi Sozialistarekin elkarlanerako eta ba... nik usten dut modu egoki batean konpartitu genezakeen gai bat ere mahai gainean dugu, benetan iruditzen zait ekarpen interesgarria oso, egin dezakezutela eta bueno... balio dezala zubi txiki honek, beste zubi txiki eta garrantzitsu batzuk ere egiten joateko.

Berdintasunaren alde, elkarlanean egiten asmatzen baldin badugu, seguru aski beste gauza batzuren alde elkarlanean egiteko ere, ba... ikasgaiak atera genitzazkeelako, beraz, ba... gaur bi berri pozgarri,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Besterik gabe, bozkatzera pasatzen gara, PNV?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Gure aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.: Aldekoa, ARALAR?,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).:Aldekoa, TALDE MISTOA?,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa eta EAK ere bai, beraz, aho batez onartuta geratzen da

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3 TALDE MISTOA; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3 GRUPO MIXTO; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

LEHENENGOA: ZUMIAKO GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO I. BERDINTASUN

PRIMERO: APROBAR POR UNANIMIDAD, EL I PLAN DE IGUALDAD ENTRE

BIGARRENGOA: Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

SEGUNDO: Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento

5.2.

2010. URTERAKO GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAN LANKIDETZA PROGRAMAK, GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOKOAK ETA EKINTZA HUMANITARIOKOAK DIRUZ LAGUNTZEKO OINARRIEI AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOA ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.

Hau, azken Gizarte batzordean eztabaidatzeko aukera izan genuen, honen inguruan eta bueno... erreklamazioa zetorren esatea, nahiz eta talde bat izan, talde bakar horrek, proiektu bat baino gehiago aurkezteko aukera izatea, eta batez ere zetorren ba... bueno Zumaian garapen bidea edo azkenengo urteetan batez ere, Zumaiarrei bideratu izan zaien dirulaguntza kontuta izanda, ez daukatela bakoitzak bere aldetik, talde bat osatuta eta horrek bermatuko lukeelako ba... eragile guzti horiei pertsona norbanakoei diruz laguntzeko aukera izango litzatekeela,

Gaia ez dut sakontasunean gehiago aztertuko, baina egia da kasuistikak hasi ginela aztertzen eta ondoriotara iritsi ginela askoz ere praktikoago zela inongo zailtasunik ez zeukalako talde bat eratzea eta esatea talde bat eratu behar zuela, oinarrian edo baldintzetan horrelako zabalkunde bat irekita laga baino ere, esan dudan bezala, pikareskarako hainbat ate zabalik lagatzen zituelako, eta

Beste alde batetik, beste behin ere, birritan, esan diegulako ofrezitu ginen gu, gure burua, gure Teknikariak, hain zuzen ere, taldea osatzeko zeukaten zailtasunak bideratzeko gure burua prestatu genuela, Udaletxeko Teknikariak prestatu zirela talde hori osatzeko, izan ere, badakigulako talde berri bat sortu da gaur egun Zumaian, arlo hontan ere, eta hilabete batean taldea eratuta zeukatelako, dakizuen bezala dirulaguntzak banatzeko garaian, azken urteetan ehuneko hiru mila edo ez dakit zenbatian, igo den partida honi bideratzen zaion dirua eta beraz, dirua banatzerako orduan, bai ezarri behar zirela baldintza batzuk eta baldintzetako bat zen gutxienez taldea eratuta egotea eta ez pertsona fisiko bakar bati ematea, ez? Pixkat gauzak araututa egon daitezen eta batez ere... beste bide batetik

dirulaguntza guztiakin gertatuko den bezala ogasun sailetik ba... baldintza minimo batzuk bete behar dituztelako, eh?

Beraz, hau esan ondoren, erabaki genuen batzordean eta irizpena zentzu hortan zihoan ontzat ez ematea beraiek planteatutako ba... erreklamazioa baina bide batez ateak zabalik geratzea beste behin ere gure Teknikarien bitartez taldea eratzeko ba... gure baliabideak eskaintzea beraiei, pena bat izango litzakeelako askotan adierazi izan diegun bezala, bai idatziz, bai telefonoz eta bai ahoz, ba... dirurik gabe geratzea, Bateren batek zer edo zer esateko honi buruz? Bai, Lide,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Bai, bere garaian eztabaidatu genuen gai honi buruz eta bueno ba... zuen eskaintza eta zuen... bueno gure Teknikariak prest baldin badaude laguntza hortarako eta ikusita beste sailetan ere aplikatzen ari direla ia neurri berdinak eta bai kulturari eta bai beste lekuetan hasi garela rasero berdinarekin neurtzen ba... ondo iruditzen zait eta nik usten dut laguntza hori eskaini eta hartzeko modukoa dela eta ea aurrera egiten duten, Egia da, beraien erreklamazioari ezezkoa ematen baldin badiegu, gelditzen da... bozkatu behar dugu lehengo oinarriak?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ez, bakarrik bozkatzen duguna da, erreklamazioa; eta erreklamazioa ez baldin bada ontzat hartzen, geratzen dira zerak.... lehen zeuden bezala,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Bale; ba... erreklamazioari ez diegu gure botua emango baina bueno... akordarazi bai gu oinarri haiekin ere ez geundela ados zeren Euskal Fondoari %10etik %30era igotzen zen partida eta gure nahia izanda beti Zumaiarrei nolabaiteko presentzi gehiago ematea eta aurretik zeuden oinarriak hortarako egokiago iruditzen zitzaizkigun eta bueno... hori mantentzen dugun nahiz eta esplikazio bezala

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Beste norbaitek, zer edo zer esateko? Ezerrez, Bueno ba... bozkatzera pasako gara, PNV?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Kontrakoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontrako botua, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Yo, la verdad es que me he enterado ahora y no estoy en contra, ni tampoco así a favor, sino que nos vamos a abstener por una simple razón, yo creo que las ayudas que se puedan hacer habrá que hacerlas y por encima de todo y si en un momento determinado se pudieran ampliar, mejor que mejor, lo que pasa que... las bases la verdad, no me ha dado tiempo a leerlas, entonces, prefiero abstenerme antes de... no por nada simplemente por éso,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.): ARALAR?,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA):Aldekoa, TALDE MISTOA?,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa eta EAK ere aldekoa, beraz, aprobatutzat ematen da,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Barkatu, barkatu, barkatu, nahastu egin gara, bai, bai, bai,
Usten dut kontra bozkatu nahi genuela guztiok eta alde bozkatu dugu, bai, bai, bai

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRA JNA. (TALDE MISTOA): Zer bozkatu behar da? Erreklamazioa bai edo ez?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ni behintzat nahastu egin naiz, hortik...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ah! Bai, bai, barkatu, barkatu....

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Lidek kontra esan duenean, harritu egin naiz eta ez! Ondo ari da eta gero honeraino ailegatu denean, niri ia berriz ere joan zait... bai, bai, bai

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Gaia da eta izenburua da, barkatu, izenburua da berriz ere zera... egiteko: **AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOA ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA**, beraz erratuta ni negoen, Lideri aitua diotenean egia izan, harritu egin nau baina bueno... orduan beraz botatu egin behar dugu eta Lide ondo zebilen, Lide bezala pentsatzen duenak kasu hontan, ezezkoa, hori da,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bueno, PNV-k ondo bozkatu du, beraz, errepikatu beharrik ez dauka...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ez, gainera...
Errepikatzen dugu aktan ondo jasota geratu dadin, PNV?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Kontra,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontra, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): En éste viaje no me he liado yo, pero seguimos con la abstención,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.): Abstentzioa, ARALAR?,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Kontra,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.):Kontra, TALDE MISTOA?,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Oraingoan bai, Ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontra eta EAk ere kontra,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 0

Aurkako botuak: 9 botu (4 EAJ-PNV; 3 TALDE MISTOA; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Abstentzioak: 2 botu (PSE-PSOE)

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 0

Votos en contra: 9 votos ((4 EAJ-PNV; 3 GRUPO MIXTO; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Abstenciones: 2 votos (PSE-PSOE)

LEHENENGOA: 2010. URTERAKO GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAN LANKIDETZA PROGRAMAK, GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOKOAK ETA EKINTZA HUMANITARIOKOAK DIRUZ LAGUNTZEKO OINARRIEI AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOA EZ ONARTZEA.

PRIMERO: DESESTIMAR LA RECLAMACION PRESENTADA A LAS BASES PARA LA CONCESION DE SUBVENCION PARA FINANCIAR PROGRAMAS DE COOPERACION EN VIAS DE DESARROLLO, SENSIBILIZACION SOCIAL Y ACCION HUMANITARIA PARA EL AÑO 2010.

Eta GIZARTE ZERBITZUETAN azkenengo puntua:

2010. URTERAKO GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAU-OINARRIAK ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.

Hau ere, ba... besterik gabe batzordean ikusia baita ere, beste Gizarte Zerbitzuetan beste arlo batean diharduten elkarteei diruz laguntzeko aukera arautzen duen oinarriak dira eta bueno... esan dudak bezala batzordean

ikusteko aukera izan dugu eta kasu hontan ez dugu gehiegi eztabaidatu baina bueno.... ba... besterik gabe,
Ez dakit, bateren batek zer edo zer esateko daukan?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Ez, aldaketarik ez dago, bakarrik txokatu zaidana.....

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, bueno aldaketa bat badago, nominalki ateratzen direlako... hori da,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Hau orduan izango litzazke Erakundeei ematen zitzaiona eta beheko plazakoak kanpoan geldituko liratezke,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Hori da,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Batzordean, oker ez baldin banago komentatu genuen partida hontara hogeita mila euro inguru bideratzen direla, hori mantentzen da? oinarrietan ez da dirurik jartzen, hontarako edo zertarako..

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Nola beti aurrekontuen funtzioan joaten den, baina bueno... intentzioa badakizu zela horiek kenduta hiru... horiek kenduta, Odol-emaileak, Beheko plaza eta zera kenduta, kenketa egitea eta besterik gabe

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Eta Lourdeseko hori, ez?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Eta Lourdesekoa, hori da,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Hiru horiek kendu eta beste guztiak hemendik joango liratezke bale,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Bakarrik nahi dut esan, zeren justu kasualitatea, atzoko hazienda batzordean hau ere eraman behar izan genuen ba... suposatzen duelako badirudi, kreditu aldaketa bat ez dirutan, baina konzeptuetan e.a.; eta hain zuzen ere hogeita mila... hogeita hiru mila euro dira, usten dut, hogeita hiru eta piko baina geratzen da, buruz ari naiz eta hamalau mila eurokin usten dut eta hiru talde horiek, Odol-emaileak, Malen Etxea eta...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Ez, Odo-emaileak, Beheko Plaza, eta Lourdes,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Beheko Plaza, seguru?

Bueno, igual da...

Hiru talde dira, horiek edukiko dute beraien partida zehatza, zeren badirudi oinarri hauek, horien oinarriak nahiko bereziak direla eta hemendik ba... atera egiten dira baina bueno.... hori... justu hurrengo plenoa etorriko da ba... kreditu aldaketa bat suposatzen duelako partiden izenetan, o sea, bat zatitzen da lautuan, baina dirua igual, igual

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Bueno, ba... ez dakit zer edo zer esateko dagoen, bestela bozkatzera pasako gara,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, nik komentario txiki-txiki bat; batzordean aurkeztu zen bezalaxe ekartzen da, baina lehendik, lehen geneukanetik hontara aldaketa txiki batzuk badaude eta bat da Euskararen ordenantzara egokitu dela eta bertan ba... hizkuntza ba... betebeharrak edo ba... bueno, pixkat bat egokitu dela landu genuen batzordean eta bueno... zeuden akats gutxi batzuk eta zuzendu ditugu eta bueno... ba ordenantza hau behintzat, ordenantza edo dirulaguntza arautzeko ba... base hauek edo ba... ditugun ordenantzetara Euskarakora ere egokitu da eta bueno.... hemendik aurrera egiten diren ba... publizitate eta kartel eta bueno ba... ordenantzari atxikiak joan beharko dira, diruz lagunduak izateko,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Oso ondo, ba... bueno beste inork ez baldin badauka ezer esateko, bozkatzera pasako gara, PNV

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND .(EAJ-PNV): Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA.): Aldekoa, ARALAR?,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Aldekoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA):Aldekoa, TALDE MISTOA?,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde eta EAk ere aldekoa,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3 TALDE MISTOA; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

LEHENENGOA : 2010. URTERAKO GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAU-OINARRIAK AHO BATEZ ONARTZEA.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4 EAJ-PNV; 2 PSE-PSOE; 3 GRUPO MIXTO; 1 ARALAR /ALTERNATIBA; 1 EA)

Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

PRIMERO: APROBAR POR UNANIMIDAD LA CONCESION DE AYUDAS ECONOMICAS PARA LAS ASOCIACIONES QUE DESARROLLAN SU ACTIVIDAD EN EL AMBITO DE LA ACCION SOCIAL EN

SERVICIOS SOCIALES PARA
EL AÑO 2010.

BIGARRENGOA: Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

SEGUNDO: Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento

Eta bukatzeko ohiko plenoa denez, ESKARI-GALDERAK,
Bateren batek zerbait esateko, M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Galdera bat, jakin dugu herri eskolako zuzendaritza kezkatuta daudela frontoi berriaren kokapena dela eta beraien ba... balizko hazkunde horren nondik norakoa nola geratzen den horren inguruan, bilera bat omen daukazute, eta nahiko genuke zuek esplikatzea zertan den kontua eta zer ari zareten hitz egiten edo zer planteatu behar diezuen, eskerrik asko

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, egia da, Eskolako nola esaten da... zuzendaritzatik gutun bat bidali zaigu hirigintzara ba... frontoiaren balizko lekua aldatetak sortu ditzakeen eszenatoki berri horrek ba... arduratu egiten dituela, normala da, arduratzea lehen hor zeuden aprobetxamendu batzuk ba... aldatzen direlako edo erabilera batzuk aldatzea proposatu dugulako, kontua da, bihar goizeko hamaiketan daukagula bilera bai zuzendaritzako kideekin eta baita ere guraso elkartekoekin Telmo Deun Guraso Elkartea eta Lubaki Guraso Elkartea eta iruditzen zaigu biharko bileraren ondotik iruditzen zaigu eduki ditzaketeen kezka ba... argituko direla baina... bilera hortan zer... eta nola hitz egiten den bilera egin aurretik ba... ezin izango dugu gaur hemen adierazi eta hurrengo hirigintza batzordean, nola ez, ba... zer proposatuko diogun eta beroien proposamenaren aurreko kezka edo zalantzak ba... hurrengo hirigintza batzordean landuko ditugu, dena den, bihar bertan goizeko hamaiketan etorri nahi duenak ba... gonbidatua dago eta hirigintza batzordean informatuko dugun arren ba... nahi izanez gero bihar hamaiketan udaletxean gai honen inguruan hitz egiteko zita,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Eskerrik asko, eta ia aipamen txiki-txiki batekin... Lehenago Andoni

Etxanizek aipatu ditu “bi berri pozgarri” eta guk hirugarrenengo berri pozgarri bati buruz hitz egin nahiko genuke, Alderdi Jeltzaileak Madrilén egin dituen negoziaketen ondorioz, hoguei transferentzi, edo dena delako transferentzi horiek ezezik, hainbat proiektuetarako finantzaketa ere lortu du eta lortu dugu, hain zuzen, Zumaiako Santioko hondartzako Plan Bereziaren gaineko proiektu, obra proiektuak zein ingurumen hobekuntza proiektuak, idazteko bostehun mila eurotako partida bat, eta orain espero duguna eta eskatzen dioguna Udal Gobernu honi da, horren gainean egoteko eta, mesedez, lehen bait lehen hitzegin dezala hitzegin behar duenarekin hori behar bezala martxan jartzeko, eskerrik asko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Alde batetik esan berria jakin genuela, hain zuzen ere, orain dela gutxi, astelehenean, eta zerbait komentatzeko aukera izan genuela baita ere hirigintza batzordean eta pena eduki genuela hain zuzen ere, zu ez etortzea, ze... pentsatu genuen nondik zetozen gaiak eta Emilianori bada ez bada ere galdetu genion, berak ez zekien e.a., hor segurua asko guk informazio ez geneukan ondo zeren guk miloi bat geneukan eta iruditzen zitzaigun barbaridade bat eta nahi genuen guzti hori argitu nola zetorren e.a.; zeren ez genuen ulertzen, egia esan

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Miloi bat, komunikabideetan gehitu egin dituztelako: Getariatik Zumaiarantz oinezkoentzat bidea egiteko proiektuaren idazketarako erdia da bostehun mila euro, eta beste bostehun mila euro hartu ditugu zehatz Santio Hondartzako Plan Bereziaren gaineko proiektuak gauzatzeko. Gauzatu ez, ez obrak egiteko, baizik eta proiektuak beraiek idazteko, Ez dakit zein izango den formula, guk alkatetza geneukanean, Ministeritzak eskatzen zigun Udalak bere gain hartzea proiektu horien idazketa eta ondoren beraiek obrak egingo zituztela; guk ezinezkoa genuen, idatzizko konpromiso bat izan gabe, hainbesteko dirutza gastatzea Udaletxeko diruetatik. Nahiz eta partidak aprobatuta geneuzkan ez genuen lortu inoiz obrak gauzatzeko konpromisorik. Gero desagertu egin ziren partida horiek, orain dagoena da proiektuak egiteko dirua. Ez Udal dirua, baizik eta Estatuaren dirua, eta behin proiektuak egiten direnean bigarrenengo borroka izango da proiektu horiek egitea, baina, nola ez diren inoiz egingo proiektuak ez badaude idatzita ba... nik usten dut bueno... notizi on bat dela, behintzat. Gure ustetan, oso ona

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Hala ere, nik nire aldetik, bakarrik esan, pozten garela berriatik normala den bezala eta desde luego Udal Gobernu hau ganean egongo dela, ganean egon ginen bezala beste.... nahiz eta akordioa ez izan eh? Ministerioarekin izan ditugun elkarrizketa ezberdinetan eta orain zorionez, bide bat nola ireki den, noski, bide hori aprobetxatzen saiatuko garela Zumaiar denon onerako izango delakoan,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ba... eskerrik asko denoi eta.....

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Egon pixkatean, egon pixkatean, ni hemen nago alde hontan, Bai, Bi gai dauzkat, urbanismo eta ingurumenean behin eta berriz atera dut eta hemen igual nire gustoko erantzuna ez dudalako jaso, baina, hemen nahi dut berriz ere adieraztea, Hau da, Zumaian dago –draga- draga bat ez dakiguna legez ari den egiten bere lan hori, ez dakigu, ezer? Kontrakoa ez dakigu, baina niri jendea galdezka ari zait kalean eta Udalak ez dauka oraindik txostenik esaten duena hori ondo dagoen edo ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Aitor erantzungo dizut momentu batean, eh? Geratu ginen, nik Felix Asensiori deituko niola datorren batzorderako, nik dei hori eginda edukiko dut eta ea berak ematen didan erantzunarekin, esango dizut,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Bai, hori ondo iruditzen zait, baina, orain dela hilabete galdetu nuen pleno baten, digo pleno bat, barkatu, komisio batean eta erantzuna izan zen kontsulta informal bat egingo zela, orduan, orain dela hilabete. Hilabete pasa da eta azkenengo urbanismo eta ingurugiro batzordean oraindik ere ez zen egin ezer. Hilabete pasa da eta nik, ez dakit, nola eskatu behar den, txosten hauek ofizialki hemen Zumaian edukitzea, zeren, ez dakiguna da behin eta berriz aipatu dugu hau, lohi horiek kutxatuta baldin badaude itsasoan ezin dituzte isuri eta itsasoan isurtzen ari dira. Zenbait jende baita ere kexatu zait gauez lanean ibili direlako. Klaro txosten hortan jarriko du al duen edo ez lan egin gauean, baina eske txosten hori ez baldin badaukagu? Eta nik erantzun bat eh... niri teknikariak bere

garaian esan zidan nik ere eskatzea ere badaukatela, noski baietz, baina nik nahi dut, Udalak, Udaletxe bezala, Udala bezala, eskatzea paper horiek.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ez bakarrik esan Aitor, ez dakidala, orain dela hilabete bat esan zitzaizun zera.... formala egingo zela, ez naiz akordatzen, zeren gaia behin baino gehiagotan ikusi dugu, Usten dut igual....

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Idatzita dago asunto hori,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, bai, igual Elik esango zizula, ez dakit, ez naiz akordatzen, desde luego, bai esaten dizudana da Felix Asensiori, alegia, Portuetako Zuzendariari hortara konprometitu nintzalako azkenengo batzordean deituko niola eta deituko diot eta datorren batzorderako zer denarekin erantzun bat emango dizut, ez dakit, gero berak, remitituko duen bi Teknikarien artean hitz egitea e.a. bueno.... guztia hitz egingo dizut,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Hau dena, orain dela hilabete egin behar zen, eskatu paper guzti horiek eta Udaletxean egon behar ziren, nire ustez, eztabaidatu dugu horri buruz, eh? Eztabaidatu dugu horri buruz, baina nola oraindik Udaletxeak ez dakien draga izugarri, haundi, horrek bere lan hori behar bezala egiten ari den, ez dakigulako, eta nik usten dut, protokolo bat egon beharko zuela Udaletxean non edozein obra egiten denean Udalerrian baimen guzti horiek Udalak, berak, eduki behar dituela,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Esaten nizun eskaera hori, nik ez dakit, ze neurrira arte... guk askotan eztabaidatu dugu eh? gai hori atera denean, ez dakit, ze neurriarte guk eskatzerik daukagun gure eskumenekoa ez den zera... batean; horrek ez du esan nahi gainera ere kasu hontan, hartu emanak ba... onak direlako galdetu ez dugunik, eongo ez garenik, e.a. baina tramitazio guztia beste instituzio batean zergatik dihoanean, ez dakit, ze... neurriarte guk hori eskatzeko gaitasuna daukagun, eta hor sortzen zaigu guri askotan, zuri esan izan dizugun bezala gure kezka izan ere ze... neurriarte ondo hartuko oten duen edo ez beraien konpetentzia den, guk eskatutako eta ze... neurriarte eskatzen diegun informazioa, eskatu, eskatu

liteke, baina bueno.... hartu emanak onak dira baina idatzi askotan formalismoak ere garrantzitsuak izaten dira gai hauetan eta formalki bakarrik idazten baldin badugu esanaz emanda dauzkazuen informazio guztiak horrela exijitzen dugu edo, ez dakit, zer egiten dugu, Esan nahi dudana da aurrena dei baten zain egongo gara, ikusiko da ea Felixek niri zer esaten didan eta gero agian, igual, teknikarien artean hartu emanetan egongo dira eta ba... guri txostena bidaltzeko aukera izango dute eta esaten dut aukera ze... berriz esaten dizut, guk ez dakit, ze... neurriarte daukagun gaitasuna beraiek derrigortzeko guri txostenak ematea,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Nik, usten dut, ez didazula ulertzen, o sea, gaitasuna, noski! Baina hori nahi egin behar izaten da, egiteko, ez bada nahi egin, ezin da egin. Gaitasuna, noski, herritar batek, herritar soil batek eskatzea baldin badauka batzorde batean erantzun zitzaidan bezala, Udalak, noski gaitasuna daukala eta are gehiago, nire ustez, nire ustez obligazioa,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Nik, bakarrik gauza bat, udalak galtza bete lan dauka bere konpetentziak diren gaiei jarraipena egin, behar diren lizentzi, behar diren jarraipen guztiak egiten eta nahi baino mantsuago eta seguru aski askotan nahi baino leku gutxiagotara iristen gara, ba... konpetentzia ditugu ditugunak, baliabideak ditugu ditugunak, eta ditugu konpetentzi guztietara ailegatzen nahiko lan izaten dugu. Beste batzuk egiten duten ba... lana fiskalizatzen hastea ba... bueno bukaerarik eduki ez dezakeen ere lan bati hasiera ematea da, eta bueno... normalean bukaera edukiko duten gauzak hastea ba... interesgarria izaten da eta kostatzen zaigu asmatzea, zergatik ez da erraza baina bueno... saiatuko gara baina iruditzen zaigu espediente hauek dominatzeko, kontrolatzeko, benetan ikusteko gauzak nola egin diren edo ez, ba... udaletxe honek eduki ditzatekeen baliabideak akaso ez direla egokienak, ez delako gure ofizioa, baina bueno... eskatuko da eta ikusiko da

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Hemen, nik ikusten dudana asunto honekin, norbaitek galdetzen badu hemen, udalean, sartzen bada norbait hemen udaletxean eta galdetzen badu draga horrek..., eske haiek dira egiten ari direnak eta ondo egiten ariko dira. Hori ez zait iruditzen erantzun bat izango zenik, Eske hori da,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Ez dakit, Aitor, gaitasuna daukagun edo ez daukagun, begiratu, juridikoki galdetuko dugu gaitasuna daukagun edo ez daukagun eta horren arabera gero jardungo dugu, baina aurrena desde luego Felix Asensiori deituko diot, gauzak pixkat normal..... bide batean jarraitzeko eta gero ikusiko dugu gaitasuna daukagun eskatzeko ahalmena daukagun edo ez daukagun eta... egongo gara gaian eta hurrengo batzordean emango diogu jarraipena gai honi,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. : (ARALAR/ALTERNATIVA): Bueno, beste gai bat ere badaukat,

Eta klaro hau, baita ere, aipatu dugu komisio desberdinetan eta da zaldien okupazio bat egon zen Zumaian eta Udala ez zen enteratu, are gehiago, udaltzaingoak egon..... nondik pasa, zer egin... bueno badakizue historio guzti hori eta saiatuko gara ez gertatzen berriro, saiatuko gara ez gertatu dadin berriro gutxienez esan beharko zitzaizkien Teknikari guztiei, nire ustez, holako kasu bat gertatzen baldin bada berriro, zuzenean hau idatziz Plan hori edo ideia hori ekartzen duenak ba... Teknikariak esan beharko lioke honi gauza horiek idatziz egin behar direla eta batzorde batetik edo bestetik pasa behar direla, erabakitzeko hori;

Eta hori gutxienez, nik usten dut, Teknikari guztiei esan behar zaiela, berriro ez gertatu dadin, zeren... klaro orain arte erantzuna izango da saiatuko gara ez gertatzen berriro, Ez! Saiatuko gara ez gertatzen berriro hauei esango dio hau, edo beste horri esango dio beste hori; baina hori garbi geratu behar da, eta orain arteko jarrera eduki dena honekin, da pixka bat pasotismo hutsa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Ba... iradokizun hau, gai hau ere azkena eztabaidatu genuen, ez dakit, noiz izan zen... orain dela gutxi, aurreko astean eta... ba... iradokizuna kontuan hartzen dugu eh? eta jasota geratzen da

Eta beste inork ez badauka ezer esatekorik, eskerrik asko

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, gaueko bederatziak direnean eta

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las veintiuna horas y yo el

nik Idazkariak fede ematen dut,

Alkateak,

Secretario doy fé,

Idazkariak,